

...eta Kitto!

2018-1-26

1043 zkia.

Agur hildako txaletari!



Toribio Etxebarria, 1

EUKI
servicios inmobiliarios

*20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan*



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Familiaren Osasuna

**Zure familiaren ahoaren
osasunaz arduratzen garelako**

Gutaz fidatu eta jarraiiezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t Twitteren:** @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

EILKARTEAREN E-MAILAK:
elkarte@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpuru, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi,
Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpuru.

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:
Maialen Belaustegi
eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TELEFONOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:
Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:
Ainhua Luz.

TIRADA: 8.150 ale.

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(“...eta kitto!” k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

Eskutitzak

– Biktimen senideekin elkartasuna –

Euskal herritar guztiak hunkitu dituzten Bilboko gertaeren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluak ondorengo hau adierazi nahi du:

- Biktimen senide eta lagunei gure errespetua, elkartasuna eta doluminak helarazi nahi dizkiegu.
- Gertaera bortitz guztiak gogorki salatzen eta arbuaitzen ditugu, edonondik datozela ere.

- Elkarbizitzan oinarritutako euskal gizarte baten eraikuntzan kolaboratzeko erabat prest gaude. Horretarako zentzutasunez jokatu beharra dagoela us-te dugu eta justiziarengan konfidantza osoa jartzen dugula azpimarratu nahi dugu, beharrezko zorrotasunez joka dezan.

EAEko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua

– Santaeskean ...etakitto!rekin –

Azkeneko urteotako ohiturari jarraituz, aurten ere ...etakitto! Euskara Elkarte santaskean ir-tengo da otsailaren 4an, domeka. Goizeko 11:00etan ensaio txiki bat egingo dugu ...etakit-to!n eta 12:00etan ibilbideari ekingo diogu: Urki-zuko iturria, Bittor Sarasketatik Estaziño kalera,

Ibarkurutz, Arragueta, Urkizu. Kalejira amaitu eta gero, mokadutxo hartzera bueltatuko gara ...eta-kitto!-ra. Eibarta guztiak zaudete gonbidatuta, eta beraz, etor zaitezte otsailaren 4an santaskean ...etakitto!-rekin ospatzera!

...eta kitto! Euskara Elkarte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MAITTE-MAITTE EGIN.- Laztandu, mimoak egin. Umeekin erabiltzen da. “Egixozu maitte-maitte neskatuari!”.

MAITTETASUNA.- Maitasuna. “Maittetasunaren sustraixak, heriotzia baiño aurreragokuak”.

astean esanak

“Nagusien egoitzek ospitaleko eredu klinikoari jarraitzen diote eta, jakina, horrelakoetan profesionalak bere lana modu eraginkorrean egitea da lehenesten dena. Profesionalen ikuspuntutik pentsatutakoak dira, ez bertan bizi diren lagunenengatik. Ez dira nagusientzako etxeak. Euren sexualitatean ez laguntzeaz gain, diseinu horrek euren intimitateari ere erasotzen die. Diseinuak erabiltzailea artatzeko bere gelara lehenbailehen sartzeari ahalbidetzen du. Komunean ere ez dutela pribatutasunik kezkatzen dira, manta azpian justu-justu”

(FELICIANO VILLAR, PSIKOLOGOA)

“Lehenago egingo die uko bere pribilegioei klase burgesak, gizonok baino. Oso une politiko xehebrera heldu gara, badirudi posizio ezberdinetatik pribilegioen aitortza egiten dugula, badakit pribilegiatua naizela zuria izateagatik, gizona izateagatik”. Horrekin soilik ez goaz inora, neurri zehatzik ez hartzekotan. Mugimendu feministak proposatzen dituen neurriak entzun behar ditugu, eta gure egin. Gizonezkoek ezkerreko mugimenduetan botere harremanak onartzeko ditugun erresistentziak gure posizio zentral pribilegiatutik erarortzen dira. Zerbaitek gure biktima papera auzitan jartzea ez zaigu gustatzen, ez diogu heldu nahi”

(JOKIN AZPIAZU, SOZIOLOGOA)

“Gaur egun mendian ‘mendi-joak’ dira nagusi, ariketa fisikoa eta psikikoa egitera doazenak, eta ez gutxi abentura bila ere. Ia ez gara Ternuara joaten, mendira joaten gara. Ez gara ateratzen Euskal Herria tiroka askatzera, baina 4.000 metroko desnibel pilatua duten lasterketak egiten ditugu. Ez da gauza bera, baina bada zerbait. Eta mendian dabiltzan horiei ez zaizkie beti gauza onak gertatzen. Heroiak eta pertsona zintzoak badabiltzan moduan, nagusikeria, enpatia falta eta matxismoa ere hor daude, mendiak ondo erakusten baitu mundua ez dagoela behar bezala”

(AINGERU EPALTA, IDAZLEA)



EVA PEREZ DE ALBENIZ

Jaio, bizi, hil

Nire inguruan dabilzan lagunak badakite azkenaldi honetan heriotzari buruz gustura jarduten naizela. Ez da edonorrekin darabilgun gaia, ezta? Ba, nire ustez izan beharko litzateke. Hain naturala da, hain egunerokoa, denori gertatu behar zaiguna. Eta heriotzari buruz hitzegitea bizitzari buruz aritzea da. Beste aldera begiratzen saiatzen garen arren, bizitzak mutur aurrean jartzen digu errealitatea. Gure txanda datorrenean, hurbileko pertsonak hiltzen direnean edo bertarako bidea hartzen dutenean, orduan aurrez-aurre begiratzen diogu heriotzari.

Hortxe nago ni orain. Hausnarketan, hiru galdera sortzen zaizkit:

1. Zergatik hiltzen gara? Umeak askotan egiten dute galdera hori, erantzun erraza daukana: munduan ez dago denontzako lekurik eta, jaioberriei lekua egiteko, aurrekoak hil egin behar dira.

2. Hil aurretik, zer egin nahi dut? Heriotza inguruko norbaiti heltzen zaio, bapatean beharbada, nahiko gaztea dena. Eta galdera hori egiten diogu gure buruari. Galdera hori altxorra da, gure bizitzan funtsezkoa dena eta ez dena bereizteko balio diguna. Eta aurrera egiteko bultzada bere baitan dakarrena.

3. Nola hil nahi dut? Ohean, lo nagoela, bizitza luze eta oparoa bizi ondoren. Baina ezin da aukeratu. Hiltzeko modu eta momentuaren aukera oraindik ez dago gure esku, eta ez litzateke erabaki erraza izango.

Baina, galderari buelta ematen badiogu, zer? Nola ez dut bizi nahi? Hor gauzak argitzen hasten dira. Menpekotasun latzik ez dugu nahi, burua galtzerik ez dugu nahi. Ezta sufrimendurik ere, edo inguruko lan gehiegi ematerik. Baina hori ere ezin da aukeratu, ez behintzat hemen eta orain.

Azken galdera hori da neri lan gehien ematen didana, lagunei txapa ematera eramaten nauena. Gure artean gai hauetaz hitzegingo bagenu, naturaltasunez, -"Nik erditze naturala nahi dut", "Ah! Ba nik ez, neri epidurala, mesedez"- esaten dugun bezain erraz, nola ez genukeen bizi nahi esango bagenu, erabakitze eskubidea hurbilduz joango litzatekeela uste dut. Mundutik desagertzeko ordua heltzen zaidanean, nire aukera errespetatuko dela jakiteak bizitzeko lasaitasuna ematen dit.

Estadu mailan saltzeko lehen makiña Eibarren ipiñi zan

1967ko urriaren 27xan ezarri zittuan Jose Miguel Lanzagorta bizkaitarrak ordura arte bakarrik pelikuletan ikusten ziran moduko bost "vending" makiña Eibarren. Orbea bizikleta fabrikari eta Armerixa Eskolan biña makiña ipiñi zittuan eta bosgarrena, barriz, SKF enpresan. Estaduko lehenak izatiaz gain, arrakasta haundia euki eben makiñak. Lanzagorta Coca-Colaren ordezkaria zan hamen inguruan eta ondo gogoratzen dittu makiña haren ezaugarriak "V-190 modeloko bat zan, 190 botillendako kapazidadiarekin, eta bost pezetarekin zebillen". 1970. hamarkadatik aurrera edari beruekin be funtzionatzen hasi ziran.



egin dau gora Gipuzkoako diru-bilketiak 2017xan, 2016. Urtekuarekin konparatuta; 4.670 millioi euro baiño gehiago jaso jaso zittuen iaz, aurreko ekitaldixan baiño 472'5 millioi gehiago eta Finantzen Euskal Kontseilluaren 23'6 millioiko aurreikuspenaren gaiñetik.

Debarrena Talent egitasmua ipiñiko dabe martxan

Udalak, Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Berrikuntza sailaren bitartez "Debarrena Talent" izeneko egitasmu berririk dau martxan aurtan, "talentuak erakarri, eutsi eta fidelizatzeko". Enpresak profesional kualifikatuak aurkitzea ahalbidetzeko, ekosistema erakargarri eta lehiakor bat sortzea da asmua. Horrekin batera Debarrenan bizi diranak eskualdian geratzeko eta aberastasuna sortzeko lan-aukerak sortzea nahi dabe. Ekimen-proposamenak hainbat fase aurrekusten dittu eta, beste ezertan hasi baiño lehen, Debarrenen enpresetan dagoazten premiñak eta zelako eskaeria daken jakittek diagnosticua egingo dabe.



Domekan jokatuko da X. Mus Txapelketako kanporaketia

Euskal Herriko X. Mus Txapelketako Eibarko kanporaketia domekan jokatuko dabe, 16:00etatik aurrera Hirurok tabernan (izen-emotia 20 eurokoa da, bikoteko). Herrixetako kanporaketiak jokatu ondoren, zazpi herrialdietako finalen txanda izango da, otsailaren 24an eta final nazionala aurtan Lapurdin, Uztairitzen izango da, martxuaren 10ian. Informaziño gehixagorako www.ehmus.eu helbidian begiratu leike.





Pensiño duiñen aldeko konzentraziñua

Beste herri askotan egin zan moduan, Eibarren be pensiño duiñak eskatzeko al-karrataratzia egin zan astelehen eguardixan Untzagan, udaletxe parian. Aldarrikapen bera egitteko atzera be konzentraziñua deittu dabe datorren astelehenerako, Eibarren ez eze beste herri guztietan be. Hori be 12:00xetan egingo da, udaletxe parian.




27.474 biztanle bizi gara Eibarren

Oin dala egun batzuk Udaleko Idazkaritza sailleko Estadistika atalak ezagutzera emon dittuan datuen arabera, gaur egun 27.474 biztanle, 14.148 andra eta 13.326 gizon bizi gara Eibarren, aurreko urtian baiño 22 gitxiago (2017xan, 27.496 giñan eta 2016xan, barriz, 27.493). Adiñari begira, 25 urtetik beherakuak 6.311 (% 22,97) dira; 26-50 urte bittartekuak 8.896 (% 32,38); 51-65 urte bittartekuak 5.804 (% 21,13); 65-100 urte bittartekuak 6.457 (% 23,50); eta 100 urtetik gorakuak, barriz, 6 (% 0,02). Eta jatorrixari begiratzuz gero Eibarren 68 herrialdetako 2.209 lagun dagoz (% 8,04).

autuan

SANTAESKERAKO ENSAIUA

Eibarko Sarek, #StopDispertsioa/Ibon Etxera kanpaiñaren harira, Santa Ageda kalejira egitteko asmua daka eta, katurako preparatzen juateko, ensaiua egingo dabe gaur arratsaldian, 18:30xetan Legarreko frontoian.



IRRATIZALE ALKARTEKUEK BATZARRA

Eibarko Irratizalien alkartekuak otsaillaren 24an egingo dabe bazkidiendako urteko batzarra, Eskarne jatetxian, 16:00etan lehen deialdixan eta 16:15etan bigarrenian. Aurreko urteko kontueri erreparasua emotiaz gain, 2018rako asmuak azalduko dittue.



La  **Salle**
Eibar

*Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra (biak barne)*

**HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA eta
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA**



**La Salle Isasi eta
Azitain Ikastetxeetan**

**MATRIKULA ZABALIK
2018-2019 IKASTURTEA**

Tfnoak. 943 202 133 / 943 121 698

www.lasalleeibar.com





Basarrirako mendekotasun eta erreleborako plana garatzia eskatu dau Bilduk

Basarri mundurako Mendekotasun eta Belaunaldixen arteko errelebo plan baten premiñiaz ohartarazi dau EH Bilduk eta planaren garapena Andirao basarritarren alkartiarekin alkarlanian egittia proposatu detsa udalari. Bilduko ordezkariaren arabera, Garapen Ekonomikuaren zati haundi bat lehen sektoria osatzen dau, "baiña udalak ez dau bihar dan moduan zaintzen, urtero azpiegiturak eta ibilbidiak konpontzera mugatzen dira". Horrekin batera, Eibar herri zaharkitua dala gogorarazi

dabe: "Populaziñuaren % 25ak 65 urte baiño gehixago dittu. Nagusixak premiña berezixak dittue eta udalak horrek asetzeko baliabidiak ipiñi bihar dittu". Pentsatzen dabez, zaintza politikak eta zerbitzuak ezinbestekuak dira zaharren bizi kalidadia bermatzeko. Basarritarren kasuan, gaiñera, arazua are larrixagua dala diñue, "gizarte zerbitzuak basarri mundura aillegatzeko eta prebenziñua lantzeko zailttasunak dittue eta, horrekin batera, belaunaldixen arteko errelebua emoteko trabak dittue".



Lagun Taldekuak bixar eskinduko dabe jaialdixa bigarrenz Unibersidadian

Aurreko asteburuan aurkeztu eban Lagun Taldeak "¡Diga 33!" dantza eta musika jaialdixa Hezkuntza Esparruan eta, betiko moduan, ikustera jua ziranak pozarren urten ziran, edarto pasatu eben-eta. Dantza eta musika batzen dittuan ikuskizunak izaten daben arrakasta ikusitta, azken urtitan emanaldi bi egitten dittue eta oinguan be bigarrenz eskinduko dabe jaialdixa, bixar, 17:30xetan Hezkuntza Esparruan. Emanaldirako sarrera guztiak salduta dagoz.

Eskualdeko ekintzailliendako diru-laguntzen barri emoteko saiua


Ekintzailliendako daguazan laguntasunen barri emoteko saiua egin zan Debegesaren egoitzan eguaztenian. Lanbideko ekintzailliendako emoten dittuan diru-laguntzak eskatzeko epia otsaillaren 1era arteku da eta, interesa dakenak, Debegesa garapen agentziaren bitartez egitteko aukeria dake. Laguntzak Debarrenian, langabezian daguazan eta enpresa-ideia bat garatu edo enpresa-proiektu barrixa martxan jarri nahi dabenendako dira. Informaziño gehixago nahi dabenak debegesa.eus webgunian sartuta edota 943820110 telefonora deittuta (Jaione Leibar) izango dau horretarako aukeria.



Aurreko zapatuan arrakasta lortu zuten. **Maialen Belaustegi**

PSE-EEko ziñegotzixa izan zan Roberto Etxaburu hil da

Aurreko astian, eguaztenian hil zan Roberto Etxaburu, 1991-1995 legegintzaldixan PSE-EEko ziñegotzixa izandakua. 85 urte zittuan eta azken agurra Txaltxa Zelaiko auditorixuan egin zetsen, ekitaldi zibillian. Sarrittan hartu eban berak parte horrelako ekitaldixetan, "apaiz laiko" moduan. Aurretik Benigno Baskaranek abiatutako tradiziñuari jarraitu zetsan Etxaburuk, horren atzetik Eneko Anduezak bere lekukua hartzeko. Horrez gain, Etxaburu Eibarko Nagusilan-en be urtiak emon zittuan nagusixeri laguntzen. Lau seme-alabaren aitta zan, tartian Aitor Etxaburu eskubaloi jokalaria olinpikuarena.



Eskola-ortuak ipiñiko dittue Urkizu eta San Andres ikastetxietan

Urkizu ikastetxeko terraza eta San Andres ikastetxeko berdegune bat preparatzen dihardue, eskola-ortuak ipintzeko asmuarekin. Udalak, Ingurumen saillaren bittartez, Eskola Agenda 21 egitasman parte hartu daben ikastetxietan holakuak bultzatzen dihardu: Urkizuko ikastetxian lau frutabola eta landare aromatikuk ipiñi dittue lorontzi batzuetan eta, horrez gain, ortua jartzeko bi bankada be jarri dittue eta San Andres ikastetxian be gauza bera egitteko biharrian dabiz. Proiektu bixetarako aurrekontua 21.000 eurokoa da. Eki-menarekin ikaslieri ingurumenarekin lotutako gaixak, batez be nekazaritza ekologikua lantzeko eta praktikan ipintzeko aukeria emon nahi detse.



Argazkiko igogailuaren ondoan dago Jabetzaren Erregistroa, Barakaldo kalean. **Silbia Hernandez**

Jabetzaren Erregistraren bulegua Barakaldo kalera eruan dabe

1986tik Zezenbide kalia egon dan Jabetzaren Erregistroa tokiz aldatu dabe eta gaur egun Urkizu aldian topauko dogu, Barakaldo kaleko 27. zenbakiko solairuartian, hain zuzen be. Abuztutik dihardue toki barrixan biharrian, astelehenetik barixakura, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte, etengabeko jardunaldixan. Sei lagunek osatzen dabe lantaldia, "lehen baiño bat gi-

txiago, lankide bat jubilau zan ezkerro". Eibar, Soraluze, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko biztanlieri emoten detse zerbitzua, "batez be eskriturak erregistratzen, Alokabiderako ziurtagirixak eskintzen eta komunidadietako estatutuak diñuena interesatueri jakiñarazten". Hara juateko modurik errezena argazkixan ikusten dozuen igogaillua hartzia da, "ate aldamenian lagako zaittue-eta".

- SUKALDEAK
- BAINUAK
- ETXEKO ALTZARIAK



ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan

AMAÑA ES LA CAÑA

Helburuak

Amaña auzoa suspertzeko elkarte da *Amaña es la Caña*.

Taldearen helburu nagusia Amañako auzokideen parte-hartzea bultzatzea da, auzokideak auzoaren garapenaren protagonista bihurtzeko asmoz.

Amañako bizilagunak auzoko erabakietan aktiboki parte hartzea bilatzen dute eta, aldi berean, elkarteko bazkide kopurua handitu ere bai.

Facebook-eko taldea indartzea da Amaña es la Cañaren beste asmoetako bat, eta, horretaz gain, auzoko elkarteen, enpresen eta bizilagun-komunitateen arteko koordinazio-egiturak sortu nahi dituzte.

Gainera, herri guztiaren inplikazioa lortu nahi dute auzoko jardueretan.

Ekintza nagusiak

Urtean zehar jarduera ugari egiten dituzte: mendi-irteerak, aratosteak, lehiaketak, pilota txapelketak, *Eibarren Akebairekin* elkarlana, umeentzako ekintzak, Amañako Jai Batzordearekin kolaboratu, *Welcom oportretan* jaia, Olentzero, Gabonak Amañan...

E-maila: infoamana@gmail.com

Facebook: [AMANA ES LA CAÑA](https://www.facebook.com/AMANA-ES-LA-CAÑA)

Webgunea: www.amanaeslacana.com



Urtean zehar jarduera ugari egiten dituzte Amaña es la Caña-koek.

JENDE XUMEA

Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

Jende Xumea Eibar PROYDE-PROEGA GKE-aren barruan sortutako taldea da eta nazio mailan Jende Xumea talde desberdinak daude. Taldearen helburu nagusia ekintza solidarioak aurrera eramatea eta beste talde edo erakundeek proposatutakoetan parte hartzea da. Ekintza horien bidez mundu justu eta solidarioa lortu nahi dute, eraikuntza horretan guztion parte hartzea bermatuz. Ekintzak, gehien bat, gure herrian burutzen dituzte, baina nazioarteko proiektuetan ere parte hartzen dute (2017ko udaran, adibidez, Bolivian egon ziren. Bideoa ikusteko, <https://www.youtube.com/watch?v=SK9Jj54T-eU>).

Ekintza nagusiak

Taldeak proposatzen dituen ekintzak, euren proiektuak finantzatzeko bideratuak daude, hala nola PROYDE-PROEGA-k dituen proiektu aniztetan laguntzeko. Hori dela eta, txosnak, tonbolak, haurrekin jolasak, zumba saioak, rifak, ... antolatzen dituzte. Horrekin batera, Eibarren aurrera eramaten diren kanpainen ere parte hartzen dute; esate baterako, Pobrezia Zero eguna edota Elikagai Bankuko kanpainak dituzte; elikagaien bilketan eta horien banaketan ere dihardute. Nahiz eta GKE baten barruan egon, beti daude beste erakunde edo taldeen ekintzetan parte hartzeko prest.

Kontaktua: jendexumeaeibar@gmail.com

Facebook: [Jende Xumea Eibar](https://www.facebook.com/JendeXumeaEibar)



Egiten dituzten ekintza solidarioen artean, elikagaien bilketan eta horien banaketan parte hartzen dute.

Astlehenean hasi ziren Mekolako etxea edo Bildosolaren txaleta deitutakoaren eraisten eta eguaztenerako amaitu zuten. Hori aprobetxatuz, gainera, Udalak zelako aukerak dauden aztertzeko ikerketa enkargatu du Mekola eta Arrate Bide kaleen arteko irisgarritasuna hobetzeko. Udalak igogailuaren aldeko jarrera erakutsi du eta egiteko arazorik dagoen jakin nahi du, modu horretan aldamenen dauden eskilarak saihesteko. Behin txaleta botata, horko orubean ezingo da inolako eraikuntzarik egin.



Azkenean agur esan digu Mekolako etxeak

Aipatutako espazio horretan ezer ezin bada eraiki ere, Arrate Bideko aldean, goian, aukera egongo da etxebizitzaren eraikina egiteko, txaletaren jabe diren familien eremuetan. Udalak eta jabe horiek txaleta kokatuta zegoen orubearen lursail-banaketa hitzartu zuten orain dela urte bi, tirabira batzuen ostean, hori guztia esparru hori garatzeko asmoarekin. Dokumentu horrek eman zuen bidea txalet zaharraren hondamendi egoera deklaratzeko. Hori bai, badira 30 urte baino gehiago Udalak Bildosolaren txaleta botatzeko asmoa zuela.

Bi zatitan banatutako espazioa

Egia esateko, txaletaren kokapenak -justu herriaren erdian eta udaletxearen atzean- ez zion inolako mesederik egiten Eibarko irudiari, zeukan egoeran. Irudi arazo horri gehirtu geniezaioke urte askotan inguruko auzolagunek azaldutako kexak, hainbeste labar eta hondakinez inguratuta "okupen babesetxe" bihurtu zelako.

Plan Nagusia onartu zutenean eraikin hori ordenaziotik kanpo geratu zen eta, hortik aurrera, hainbat ekimen aurkeztu ziren zeozer bultzatzeko. Esaterako, Ardantzatik Arrate Bidera doan espazio horretan txaletaren jabeek etxebizitzak egiteko proposamena egin zuten, eta beste bat hotel txiki bat eraikitzeko asmoa azaldu zuten ere. Azken ekimen hori atzera bota zuten Udaletik eta Hirigintza arlotik erabaki zuten beharrezkoa zela espazioa bitan banatzea, bi espazio desberdinekin, Plan Nagusiak markatutakoaren bidetik: trenbidetik gertuen dagoen espazioa, "millonarixuen etxeen" ondokoa, parkea eta lasai egoteko aprobetxatuko zuten. Udalak, horretaz gain, espazio horretan igogailua eraikitzeko asmoa du, arkitektoek diotenez "eskilara mekanikoak egitea ezinezkoa delako".

Parkea eta igogailua egingo dira

Txaleta botatzeak 30.000 euroko kostoa izan du. Hemendik aurrera egingo diren lanekin Udalak auzokideen ardurei

erantzun nahi die, "ingurukoak eta eibartar guztiak irabazten irteteko". Udala pasealekutik gertuen dagoen espazioaren jabe egingo da eta jendeak erabiltzeko espazio askea sortzeko asmoa du, zona berdea izateaz gain. Espazio horrek 476 metro karratu ditu eta guztiz berrurbanizatu da. Arraterako errepidetik gertuen dagoen espazioan, bestalde, jabeek eskatzen duten etxebizitzaren eraikina egingo da. Hor ere hainbat akordiotara heldu behar izan zen, zati bat San Andres Fundazioarena zelako; Udalak erosi egin zuen eremu hori aurrera egiteko.

Irabazi alderdi politikoak, berriz, Musika Eskola txaletera ekartzeko eskatu zuten, horretaz baliatuz txaleta berregokitze eta espazio berria sortzeko eskatuta. Baina asmo hori baztertu egin zuten Udal arduak, Portalean gaur egun dituzten instalazioen alde eginez. Irabazik, dena dela, onartu du igogailua egitea, pasealekuari eta auzokideei, orokorrean, mesede egiten dielako.

FRANCISCO BERISTAIN ALBIZU "PATXI"

(2018ko urtarrilaren 12an hil zen)

"MILA ESKER GURE BIZITZETARA EKARRI DIGUZUN
POZTASUNAGATIK. ASKO MAITE ZAITUGU"

FAMILIAREN PARTEZ, MILA ESKER hilbeilan, hileta-mezan,
irteera-mezan eta gure saminean lagundu diguzuen guztioi.



Badira urte batzuk Mendebaldeko Saharan bizi direnei laguntzeko asmoz Eibar-Sahara Elkarteak sortu zutela. Egunotan, kanpamenduetara janaria bidaltzeko kanpaina dihardute lanean, baina hortik kanpora ere hainbat ekimen antolatzen dituzte urtero, tartean Oporrak Bakean izenekoa. Udan umeak etxean hartzeko prest dauden familiak behar dituzte eta, horregatik, jendea animatu nahi dute.

EDURNE UZKUDUN

(Eibar-Sahara Elkarteak):

“Umeentzat oso garrantzitsua da aldi baterako hango baldintza gogorretatik aldentzea”

- Urteroko moduan, Mendebaldeko Sahararako janaria biltzeko kanpaina daukazue martxan, ezta?

Hala da, aurten ere Mendebaldeko Saharara bidaltzeko elikagaiak batzeko kanpaina ipini dugu martxan. Azken txanpan gaude, baina oraindik laguntzeko aukera dago, produktuak urtarillaren azken egunera arte jasoko ditugu-eta. Beste batzuetan bezala, arroza, pasta, lekaleak, azukrea, atun eta sardina latak oliotan eta konpresak batzen dihardugu, horiek direlako hara errezan eraman daitezkeenak eta, gainera, kanpamenduetan bizi direnek ondo baino hobeto aprobetxatzen dituzte horiek. Eibarren (BM, El Corte Inglés, Eroski eta Villalba supermerkatuetan eta Isasi okindegian), Mendaron (Coviran eta Puxikan) eta Elgoibarren (BM eta Eroskin) ari dira batzen. Bilketa-kanpaina amaitu eta jarraian, jasotzen ditugun produktu guztiak sailkatzen eta prestatzen ibiliko gara asteburuetan-eta, otsailaren erdialdera Eibarko Udaleko brigadaren laguntzarekin dena Bilbora eraman eta handik Sahararen Aldeko 14. Karabana Solidarioan bidaltzeko. Aurreko urteetan Eibar eta inguruko herrietan 4.000 kilo inguru bildu ditugu, jendearen eskuzabaltasunari esker. Egia esan, jendeak asko laguntzen du eta hori benetan eskertzekoa da. Izan ere, orain dela urte batzuk erakundeetatik laguntza gehiago jasotzen

zuten errefuxiatuek, baina krisiaren aitzakia-rekin horiek murrizten joan ziren eta, gaur egun, Tinduf-en (Aljeria) bizi diren 200.000 inguru sahararrentzat berebiziko garrantzia daukate karabanan bidaltzen diren elikagaiak, bestela nekez dutelako janaria lortzeko beste biderik. Eta, laguntza handia izan arren, denen artean banatu ahal izateko elikagaiak mugatu egiten dira eta, besteak beste, askok malnutrizio arazoak daukate.

- Kanpamenduetako bizi baldintza gogorrek nolako eragina daukate han bizi direnen osasunean?

Malnutrizioarekin batera, edateko ura lortzeko zailtasun handiak daukate. Basamortuan bizi dira eta, beraz, ur gutxi egoteaz gain ez da edateko ona. Hori dela eta, giltzurrunetako arazo ugari daukate. Begietako gaitzak ere oso sarritan agertzen dira... Baldintza oso gogorretan bizi dira eta horrek euren osasunari eragiten die nahitaez. Besteak beste, horregatik da horren garrantzitsua Oporrak Bakean moduko egitasmoen bitartez umeak pare bat hilabeterako handik eterra eta baldintza hobekak eskaintzea.

- Hain zuzen ere, udan ume bat zuen etxean hartu nahi duzue, ezta?

Bai, gainera guk ekarri nahi dugun umearen kasua oso berezia da, epilepsia duelako. Lahsan eta bere anaia bikia 2010ean jaio ziren eta, lehen krisiak 4 urte zituenean hasi zi-



ren. Baina denborak aurrera egin ahala gero eta maizago izaten ditu krisiak eta, han gaitotasunari aurre egiteko baliabiderik ez dagoenez, hona ekarri nahi dugu, bide batez medikora eraman eta behar duen tratamendua emateko. Tramiteak normalean baino zailagoak ari dira izaten, baina azkenean ekarzea posible izatea espero dugu.

**- Bestela, zer egin behar dute udan ume-
ren bat etxean hartu nahi duten familiak?**

Eskaera egiteko orriak-eta betetzea oso erreza da eta, gainera, guk egiten dugu eta, horrekin batera, familiarekin elkarrizketa labur bat egiten da. Otsailaren amaiera arteko epea dago eskaera aurkezteko. Bestela, ez da aparteko ezer eskatzen. Gainera, gaur egun era guztietako familiak onartzen dira, berdin dio haurrak izatea ala ez, guraso bakarra izatea... Gipuzkoara 100 bat ume ekaritzen ditugu, gehienak herri ezberdinetan izena eman duten familietara joaten dira eta, denentzat familia nahikorik ez dagoenez, 15/20 bat Villabonako aterpetxera juaten dira. Eibarren, Udalak hiru umeren bidaiak ordaintzen ditu, baina orain arte bakarrik bi familiak egin dugu eskaera. Beraz, besteren bat animatuz gero, Eibar-Sahara Elkartearekin kontaktuan ipintzera animatu nahi dugu, Facebooken daukagun orriaren bitartez edo, bestela, zuzenean neri deituta (659 591 607 telefono zenbakira).

gremioen gida



943-206776



ANTENAK

BALATZ
Instalakuntzak eta konponketak
antena

Bidebarrieta, 37 Tfnua. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnua. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria
arkitektura, hirigintza eta periferiazioak
erailkin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ELEKTRIZITATEA

egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac
egoluz@hotmail.com

677 51 24 62
630 95 73 45
943 20 06 97

943 530 356
688 674 242
669 934 964

**electricidad
iparelek S.L.**

INSTALAZIOAK ETA
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko
urgentziak

610 532 922

ERAKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION
TECNICA DE
EDIFICIOS

E.I.T.

ERAKINEN
IKUSKAPEN
TEKNIKOA

info@ajtoficina.com Tlf. 943 80 18 80
AJT zihurtasuna S.L.P.
Barrena, 6 - behea ezk.

ERREFORMAK

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

PROIEKTUAK - ERREFORMAK
GREMIOEN KOORDINAZIOA
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168 943 744 019

GARBIKETAK

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superfizie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnua. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Arragueta, 18-2.D

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorraluze

*Garbiketa eta
mantenimendua*

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobez
goza dezazun

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnua. 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arikixaneko Zubian

PINTURAK

baglietto
PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

www.kolorlan.com 667 54 89 16

KOLORLAN
PINTURA LANAK S.L.

MALVAR
PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnua. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Astelehen goizian aurkeztu zittuen XLI. Antzerki Jardunaldixak udaletxian. Ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatia, Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria, María Jose Telleria Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura zuzendaria, Patxi Lejardi Kultura ziñegotziza eta Juan Ortega Jardunaldixen antolatzailea izan ziran. Otsaillaren 16xan hasi eta martxuaren 23an amaituko dira Jardunaldixak. Tarte horretan, 20 konpainiatik gora izango ditugu herrixan, danetariko lanak taularatzen. Antzezlan guztietarako sarreraren aurrealdea bixar hasiko da, 10:00etan eta aurten Untzagako jubilauek egongo dira txartelak saltzen, zapatuan, domekan eta astelehenian.

Urteroko martxan, aurten 16. edizi-
ña beteko dabena Giza Irudixen
erakustaldixak zabalduko dau egi-
taraua, otsaillaren 16xan. Arratsaldeko
17:00etatik aurrera, kale antzerkiko moda-
lidade horretan mailla gorenean dagozen
aktoriak Untzaga eta Toribio Etxebarria ka-
lian erakutsiko ditue egun horretarako au-
keratzen dituen personajak. Handik bi
egunera, otsaillaren 18xan, "Entre actores"
hitzaldi-solasaldixak zabalduko ditte modu
ofizialian 41. Eibarko Antzerki Jardunaldi-
xak, 19:00etan Coliseo antzokixan. Hola-
ko ekitaldirako aktore ezagunen bat gon-
bidatzen dabe, baiña aurten lau aktorek
jardungo dabe berbetan: José Sacristán,
Gurutze Beitia, Imanol Arias eta Iñaki Mi-
ramón elkarrekin jarriko dira, Juan Ortegak
aurkeztuko dabena solasaldixan. Sarrerian
doan izango da.

Aurkezpen ekitaldixan azpimarratu ebe-
nez, "aurreko ediziñuetako bidari jarrai-
ttuta, aurtengo egitarauan be oso eskin-



Astelehenian egin zeben Jardunaldixetako aurkezpena. **Silbia Hernandez**

41. Antzerki Jardunaldixak mailla goreneko lanak ekarriko deskue

*tza zabala dago, hain zuzen be hori dala-
ko Eibarko Antzerki Jardunaldixen ezau-
garria. Gaiñera, eskintzan dagan aniz-
tasunari esker, jendia antzerki kontuetan
hezitzeko lagungarriak izaten dira jardu-
naldixak".*

Egitaraua osatzen dabena lanak esena-
rigo bittan, Coliseo antzokixan eta Hez-
kuntza Esparruko antzokixan eskinduko di-
ttue. Jardunaldixen harira Eibarrera etorri-
ko diran konpainietako sei Euskal Herriko

antzerki taldiak izango dira eta euren es-
kutik zortzi antzezlan ikusteko aukeria
egongo da. Eta euskeraz taularatuko di-
ttuen lanak lau izango dira: "Ez dok hiru"
(Tartean Teatro), "Txarriboda" (Hika Tea-
tro), "Ulises-en bidaia" (Teatro Gorakada)
eta "Sherezade eta tipularen azalak" (Vai-
vén Producciones).

Antzerki Jardunaldixak 164.000 euro-
ko aurrekontua izan dabe eta, antolatzaile-
lien berbetan, "derrigorrez pagau bihar



FELIX GANDIAGA ARTETXE

I. URTEURRENA (2017-I-29)

**"Bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko"**

ETXEKOEK



OTSAILLEAN

16 (barixakua)	17:00	XVI. Giza Irudien Erakustaldia (M.P.C.)	Untzagan eta T. Etxebarrian
18 (domeka)	19:00	"Entre actores" hitzaldia, Juan Ortegak aurkeztuta	Coliseoan
19 (astelehena)	20:30	"Muñeca de porcelana" (Bravo Teatro, Madril)	90 minutu 15 euro Coliseoan
21 (eguztzena)	20:30	"Ez dok hiru" (Tartean Teatroa, Bizkaia)	80 minutu 12 euro Coliseoan
23 (barixakua)	20:30	"Los visitantes" (Khea Ziater, Bizkaia)	75 minutu 12 euro Coliseoan
24 (zapatua)	17:00	"Deambulantes" (La Cantera, Madril)	60 minutu 5 euro Coliseoan
25 (domeka)	20:30	"Para seguir viviendo" (Arrojoscénico, Madril)	65 minutu 5 euro Hezkuntza Esparruan
26 (astelehena)	20:30	"La vida es sueño" (Teatro del Temple, Zaragoza)	100 minutu 12 euro Coliseoan

MARTXOAN

1 (eguna)	20:30	"Sensible" (Concha Busto, Madril)	80 minutu 15 euro Coliseoan
2 (barixakua)	20:30	"Lorca, la correspondencia" (Histrión, Granada)	75 minutu 12 euro Hezkuntza Esparruan
3 (zapatua)	20:30	"Héroes" (Txalo Produkzioak)	80 minutu 15 euro Coliseoan
8 (eguna)	20:30	"Los universos paralelos" (P.T.C., Madril)	100 minutu 15 euro Coliseoan
9 (barixakua)	22:30	"La noche más feliz del mundo" (Mago Valen, Riki)	120 minutu 12 euro Coliseoan
10 (zapatua)	20:30	"Los cuernos de Don Friolera" (La Garnacha, Errioxa)	110 minutu 5 euro Coliseoan
11 (domeka)	20:30	"Txarriboda" (Hika Teatroa)	80 minutu 12 euro Coliseoan
13 (martitzena)	20:30	"La zanja, encuentros Europa/América" (Titzina, Barna)	90 minutu 12 euro Coliseoan
15 (eguna)	20:30	"Electra" (Chapitô, Portugal)	60 minutu 12 euro Hezkuntza Esparruan
17 (zapatua)	17:00	"Ulises-en bidaia" (Teatro Gorakada, Bizkaia)	55 minutu 5 euro Coliseoan
18 (domeka)	17:00	"Fabricando ilusiones" (Fabrica de Magos, Bizkaia)	90 minutu 12 euro Coliseoan
	20:30	"Fabricando ilusiones" (Fabrica de Magos, Bizkaia)	90 minutu 15 euro Coliseoan
19 (astelehena)	20:30	"Isabelita la miracielos" (Narruzko Zezen, Eibar)	80 minutu 5 euro Hezkuntza Esparruan
21 (eguztzena)	20:30	"Sherezade eta tipularen azalak" (Vaivén, Gipuzkoa)	65 minutu 12 euro Hezkuntza Esparruan
23 (barixakua)	20:30	"El oximoron de la abuela" (La Red, Gipuzkoa)	80 minutu 5 euro Coliseoan



Tartean Teatroa
eta "Ez dok hiru"

diran SGAE eta holakuak albo batera lagata, ixa diru guztia antzezlanak kontratatzen gastau dogu". Jardunaldixak antolatzen dabizenak urtietako esperientzia dake eta badakixe presupuestuari etekiñik haundiña zelan etara. Horreri esker lortzen dabe oin momentuan antzerkixan mailla gorenian daguazen asko gurera ekartzia.



La Red

Programaziñuan, bestiak beste, honako lanak dagoz: Juan Carlos Rubiok zuzendutako "Muñeca de porcelana", Jose Sacristán eta Javier Godino aktoriak parte hartzen daberen antzezlan, "La vida es sueño" (Teatro del Temple), "Sensible" (Kiti Mánver eta Chevi Muraday), "Lorca" (Histrión Teatro), "Héroes" (Txalo Produkzioak eta Pentación), "Los universos paralelos" (PTC Madrid), "La noche más feliz del mundo" (Mago Valen eta Riki López aktoreekin) eta "Los cuernos

SARRERAK
Untzagako jubilau
etxian salgai
bixartik aurrera

Antezlan guztietarako sarreraren aurrezalmenta bixar zabalduko dabe, Untzagako jubilau etxian, eta hiru egunetan (urtarrillak 27, 28 eta 29) egongo da sarrerak erosteko aukeria, goizeko 10:00etatik 14:00xetara. Internet bidezko salmenta be zapatuan (goizeko 10:00etan) hasiko da www.kutxabank.es helbidian eta, horrekin batera, funziño bakoxtaren aurretik (ordubete lehenago) dagokixon antzokiko leihatillan erosteko aukeria be egongo da. Urtarrillaren 29tik aurrera, barriz, sarrerak Coliseo antzokixan egongo dira salgai, astelehen eta barixakuetan, 17:30xetatik 19:30xetara, interneten (www.kutxabank.es) eta leihatillan, funziño bakoxta hasi baiño ordu erdi lehenago. Eta goguan izan Coliseoaren Laguna txartelarekin sarrerak merkiago erosteko aukeria daguala.

de Don Friolera" (La Garnacha Teatro). Ediziño honetan eibartarrak taula gaiñian be aparteko tokixa beteko dabe: Narruzko Zezen taldekuak "Isabelita la miracielos" eskinduko dabe eta, Jardunaldixak amaiera biribilla emoteko, Jose Luis Gonzalez Blancoren "El oximoron de la abuela" antzeztuko dabe Maite Lorenzok eta Juanma Canok.



Narruzko
Zezen

Datorren egunean, otsailaren 1ean, Armeria Eskolak "Ondo Egindako Lana" programaren hamargarren kapitulua beteko du, oraingo honetan Mariano Ferrer kazetariaren ibilbidea goraiatzeko asmoz. Euskal Herriko kazetarien artean "popularenetakoak" Martxelo Otamendi Berriako zuzendaria izango du lagun ekitaldian, azken honek zuzendu eta moderatuko baitu kazetariari egin beharreko galderak. Mariano Ferrer-ek 1971tik aurrera goizeko informazio programa zuzendu zuen Donostiako Herri-Irratia / Radio Popularrean, El Kiosko de la Rosi izenarekin, eta hiru hamarkadatan iraun zuen bertan, jubilatzeke ordua heldu zitzaion arte. Aipatutako programak entzule asko izan zituen, batez ere kazetariak erakusten zuen independentziarekin bat egiten zutenak; iritzi-emaile moduan, jarraitzaile kopuru handia izan zuen.



MARIANO FERRER (kazetaria):

“El Kiosko de la Rosi moduko zeozer behar dugu egunero salatzeke zure lanarekin ezin bizi ahal izatea zuzena ez dela”

- Otsailaren 1eko ekitaldian Ondo Egindako Lanaren errekonozimendua egingo dizute. Zer esanahi du horrelako ekitaldiak zuretzako?

Inolako disimulu barik esango dizut asko eskertzen dudala. Batez ere, jubilatuta ere banagoenez, jarrera hori izan behar dudala pentsatzen dut. Zer esanik ez nitaz gogoratzen direnak -kolaborazioren bat edo beste kenduta- eurekin harreman berezirik izan ez dudan jendea denean. Ez dut pentsatzen merezi dudan ere; hainbeste jenderen artean, niri tokatu zait.

- Urte asko eman dituzu lehen lerroan. Zelan egin zaizu erreserbara pasatzea? Ala ez da halakorik izan?

Aldaketa erabatekoa izan da. 2004an jubilatatu nintzenetik, beste hamarkada bat eman nuen gutxinaka-gutxinaka baztertzen. Radio Euskadiko Bulevarrean jardun nuen denbora batean, tertulietan, zutabe-

ak eginez... Guztiz erretiratu arte, eta horrek derrigorrez dakarren ahanzturan guztiz sartzeraino. Ni neu erretiratzen nindotan, eta ingurukoek erretiratzen ninduten. Baina jendearen errespetua izan dut beti, inork ez nau zapaldu. Ez naiz ahaztuta sentitzen, prozesu sanoa izan da erabat.

- Kazetaritzaren garapeneko baloreen artean, zeintzuk galdu dira eta zer irabazi dugu? Zeozertan aurrera egin badugu behintzat...

Luze joko luke horretan sakontzeak, jautzi ikargarriak bizi izan ditugulako. Diktadura barruan kazetaritzan zentsura eta koldarkeria besterik ez zegoen. Franco hil ondoren, balore demokratikoen defentsa sutsua bizi izan genuen; eta ondorengo irekierari korrupzioak jarraitu zion, gutxinaka barneratzen joan zena arlo askotan. Laugarren botereari eskatzen zitzaion zaintzaile funtzioak ez zuen hasperen bat ere iraun. Eta

hortik sortu zen ideologia nagusia izan zen bakoitzari komeni zitzaion hura babestearena. Dirua gero eta parte-hartze zuzenagoa joan zen hartzen eta, azkenean, bankuak eta konpainia elektrikoak buru-belarri sartu ziren telebistaren, foballaren... negozioan. Krisia etorri zen gero, eta horrekin zer gehiago? Zorrak, jakina; eta iraultza digitala ate joka. Azken horrek, gainera, inolako prestaketarik gabe harrapatu gintuen. Uste dugu informazioa demokratizatzen dela, egia da bakoitzak bere gauzak kontatu ditzakeela... baina, horrelako olatuaren aurrean, betikoa: gauza onak eta ez hain onak dira tartean, eta informazioak filtrak batzuk ere beharrezkoak izaten ditu. Lehen, informazioa ematen ziguna gutxi gorabehera ezagutzen genuen; orain, oster, horrek ematen zigun sinesgarritasun maila hori faltan botatzen dugu. Eta lehen informazioa negoziatzen zen merkantzia zen


moduan, une batetik aurrera ikusten duzu informazioa eta iritzia nahastu egiten direla guztiz. Mugikorra erabiltzen dugun moduan, ez dut uste aldaketak txarrerako izango direnik; baina bai horrek filtroa behar duela. Pazientzia behar dugu: ikasiko dugu mantsotzen eta mendean hartzen.

- Zer sentitzen du batek iritzi-sortzaile moduan? Estimatu larregi akaso, ardura, 'Marianok esan du' entzutean?

Iritzia sortzen zelan hasi zinen gogoratzen duzunean... ezustea izan zen guztiz. Ni orduan jesuita nintzen eta, horri esker, EEB-Ban izan nintzen bost urtez; handik itzultzean, hemengoa ez zuen zerikusirik nik han bizitakoarekin. Herri Irratira heldu nintzenezan esan zidaten ezin nuela berririk eman; gure lana mugatu behar zela lehiaketak eta halakoak eskaintzera. Eta orduan pentsatu nuen besteen berriak emango nituela, zer ez zuten kontatzen eta zergatik azaltzeko. Taula mugitzen hasi nintzenezan, Ministeritzatik berehala debekatu zidaten egungo egunkaria irakurtzea, jendeari berria aurreratzen niola-eta. Eta orduan hasi nintzen bezperako berrien irakurketa egiten, azkenean "Decía ayer" esan eta egun bereko berriak kaleratzen joateko.

Nik ez nuen iritzi sortzaile izan nahi, gertatzen zena kontatzea besterik baino ez zen nire asmoa. Baina zortea izan nuen, sasoi hartako beldurrak sortutako hutsunea bazegoelako arlo horretan. Horren aurrean jaioberri baten moduan erreakzionatu nuen. Eta gero eta ardura handiagoarekin hasi nintzen jokatzeko hanka sartzeko beldurrez. Auto-estimua ere ondoan duzu, podio baten jarri zaituzte-eta. Uste dut asko ahalegindu nintzela ausarta izaten, zintzo jokatu nuela... Ikusten duzu jendea inguratzen zaizula eta, horren aurrean, zuhur jokatzeko ere ikasten duzu.

- Askatasunen arloan, ez goaz atzerantz eta urrats handiak eginez, gainera? Zelan interpretatzen duzu kartzelan zegoen Yoldi lehendakari gaiari orain dela hamar markada batzuk bere burua aurkezten lagatzea eta orain Junquerasi halakorik debekatzea?



Prentsa-askatasunari heltzen badiogu, beti esan dut ez baduzu askatasun hori hartzen, kendu egingo dizuten, edo kentzen laga egingo diezula. Giza-eskubideak arriskuan egongo dira beti politikoak eta epaileak elkar hartuta dabilten bitartean. Frankismoaren ondoren, hemen klase politikoa zeozer garbitu zen behintzat -PP badakigu nondik datorren-, baina orduko polizia eta epaileek euren postuetan jarraitu zuten, hor ez zen ezer garbitu. Eta herritarren zerbitzura egin beharreko lana ez da ohitura bihurtu oraindik. Justizia politikan sartzen hasi zen, ETaren jarduna aprobeztatuz, eta nahi zuten guztia egiteko baliatu zuten aukera hori, zigortzen arrazoitu gabe... Llaarena epailearena azken 15 urteotako jardunaren ondorioa da. Oso txarto gaude, batez ere gizarteak ez duelako erreakzionatzeko inolako asmorik erakusten.

- 18/98 makrosumarioan buru-belarri saru zinen. Zer zapora laga zizun han bizitakoak?

Han bizi izan nuen justiziak izan dezakeen injustizia edo bidegabekeri handiena. Zelako epaiketa izan zen hura! Aurretik epaitzen jardun zuen Espainiako prentsa guztia epaiketan azaldu ere ez zen egin,

ezta egun bakar batean ere! Egia zein gutxi interesatzen zitzaien konturatu nintzen: poliziak filtratzen ziena kontatu eta gero epaileen erabakia, besterik ez. Gora sumisioa, akabo kontrola! Ezker abertzalegoa barrutik ezagutzeko aukera ere izan nuen eta baita akusatuen familiakoen eta inguruko adorea ere.

- Euskal Herriko errealtateak eta Espainiakoak antzik badute? Ala desberdinak dira guztiz?

Gero eta antz gehiago dugu. Euskal administrazio berriari nabaritzen diot, gero eta gehiago, Espainiakoan ikusten duena bilatzen duela... Madrilen bueltan dabilten ejetibo tankerako marrazoak hemengo uretan ere badabilta... Zer esanik ez langile klasearen esklabotasuna, hangoa eta hemengoa, paretsu... Zergatik ikusten da hemen Tele5 beste tokietan baino gehiago? Euren modukoak izan nahi dugulako.

- El Kiosko de la Rosik izango zuen tokirik gaur egun?

Ez dut uste. Bere aukera izan zuen, egoera ere halakoa zelako. Zorte handia izan zuen, orduko irratia gutxi eta zaharrak zirelako: Radio Nacional tristeza zen, Ser kateak ipuinak besterik ez zituen kontatzen. El Kiosko de la Rosik horrela lortu zuen bere tokia egitea: sasoi hartan inork ez zuenez txintik ere esaten, guk hori eginez lortu genuen gutaz jendeak berba egitea. Orain zaila izango zen antzekorik egitea, gaurko ahots-kakofoniaren aurrean. Gizartean tarre hori eskuratzea askoz ere zailagoa da egun. Beharrezkoa den galdetzen badidazu, inoiz baino gehiago esango nizuke. Estatuan bizi dugun politikaren munduaren degradazioa neurritz kanpoko da eta, zer esanik ez, krisiak eragindako lan-erreformaren bidegabekeria. Orain dela 15 urte pentsatzen ez genuen lana=esklabotasuna bizi-bizirik dugu inguruan. Horri aurre egin behar zaio, baina ez asteen behin: ahots bat behar da hor, egunero errepikatzen. Ezin da horrelakorik jasan, kontzientzia hori zabaldu egin behar da gizartean. Horrela lortuko dugula? Hori zailagoa da baieztatzea.



ASIER URZELAI "URZE"

(X. URTEURRENA)

Hiru Erregeen Mahaian hil zen
2008ko otsailaren 1ean

"Maite zaitugu"

ZURE GAZTELUKO ILOBEK; MIREN ETA BEÑAT, KEPA,
MIKEL, ANDONI, ARANTZAZU ETA ZURE BESOETAKO ANDER.

Garbi jateko asmoa

Aurten ere iritsi gara urtero lez promesen edo sinegiteen garaia. Urte zaharra bukatu eta berriaren hasieran, nork ez ditu urtean zehar burutzeko ekimen eta helburuak buruan? Erretzeari utzi, kirol-jarduerak egiten hasi, osasuntsu edo garbi jaten hasi... horiek izaten dira gehienon buruan bueltaka ibiltzen ditugun asmoak. Oraingoan, osasuntsu edo garbi jateko asmoari begiratuko diogu. Zergatik izaten

dugu gehienok garbi jateko gogoia urteko sasoi honetan? Egia da, gizarte honetan, garbon garaian gehiegikeriak eta elikadura desorekatuak ekiditea ia ezinezkoa dela. Sasoi honetan jaten ditugun elikagaiak koipe eta azukretan aberatsak izaten dira. Hori dela eta, jaiak amaitu ondoren gorputzak garbiketa bat eskatzen digu oihuka. Horretarako ere, zentzuz jokatu beharra daukagu. Ez da likido, elikagai laxan-

te eta ezer gutxi bakarrik hartu behar. Hainbat substantzia eta gehiegikeri gorputzetik ateratzen eta ongi elikatzen laguntzen dizkiguten elikagaia osasungarriak jatea ezinbestekoa zaigu. Batez ere garaiko fruitu eta barazkiak gainontzeko elikagaiak baztertu gabe. Elikadura orekatu eta osasungarri bat izan beharko genduke helburutzat. Ez da batere ona gehiegikeriak egiten jardutea eta ondoren gehiegikeri horiek kentzen saiatzea. Zergatik ez egin urte osoan elikadura orekatu bat gehiegikeriak albo batera utziz? Askoz ere hobeto ibiliko ginatete. Bestalde, urtaroei erreparatu, esan beharra dago orain neguan gaudela eta negua ez dela urtarorik egokiena gorputza garbitzeko. Neguan hotz egiten du eta gure gorputzak beroa eta berotuko



jaione yeregi
TEKNIKARIA DIETETIKA
ETA NUTRIZIOAN

gaituen elikagaiak behar ditu. Gordetzeko, biltzeko garaia da. Denbora luzez sukaldatutako elikagaiak jateko garaia da lekaleak, zekaleak... ahaztu gabe. Baina gehiegikeririk egin gabe. Beti ere modu orekatu batean. Dena den, gehiegikeriak eginez gure gorputzak garbiketa eskatzen badigu, edozein garai da ona horretarako. Garbiketarako lagungarri izan daitezkeen belarrak: kardu-bellarra, frangula, urkia, azeri-buztana, asunak... dira.

Salomon sindromea

Gurasoak banatzen direnean haur batek izaten dituen alterazio-, sentimendu- eta emozio-mul-tzoari deitzen zaio "Salomon Sindromea", eta gurasoak bisitetan, hezitzeke ereduari, hezkuntzako gauzetan edo gertatzen ari denari buruz haurrari bildatzen dioten mezuetan ados jartzen ez direnean gertatzen da. Horren guztiaren ondorioz, simptomatologia ekartzen duen leialtasun-gatazka ematen da haurraren. Dibortzio konfliktiboan ondorioz arazoak gertatzen dira garapen emozional eta kognitiboetan.

"Banatzen ari naiz" esaldia arrunta eta esanguratsua da oso. Prozesua azaltzen du, bide bat, non

harremanaren desgastea, gatazkak eta liskarrak sortzen joaten diren. Lehenik eta behin urrutze emozionala gertatzen da, banaketa fisikoa iritsi arte, horrek dakarren egokitzearekin.

"Txikiogia da", "ez daki zer gertatzen ari den", "ondo dago, ez du ezer galdetzen", "ez du ezer esaten" bezalako esaldiek adierazten dute helduek daukagun itsumen emozionalak ez digula uzten haur baten bizitzan hain garrantzitsua den gertakari bat kalibratzen. Funtsezkoa eta behar-beharrezkoa da, adina kontuan hartuta, gertatzen ari dena kontatzen joatea. 3 eta 5 urte bitartean pentsamendua egozentrikoa da eta, ondorioz, ohikoa da errua euren buruari botatzea. 6 eta 8 urte bitartean oraindik ahalguztiduntasuna ematen da, eta pentsa dezakete gertatzen ari dena eurak txarto portatzearen ondorio dela, besteak beste.

Haurrak oso sentiberak dira euren gurasoen harremanarekiko, harremanaren termometroak dira, harremanak funtzionatzen ez duenean isiltasunean sufritzen dute. Osasunaren profesionalak, bitartekaritza familiarra, terapia eta familia-laguntza bidearen momenturen batean helduentzako eta haurrentzako beharrezkoak izan daitezkeen baliabideak dira.



arrate garitaonandia
PSIKOLOGOA/PSIKOTERAPEUTA



**Kanpoko
hotzaren
aurrean...**

**...ETXEAN
BERO-BERO**

**2018ko
urtarrila**

fonta.amana@gmail.com



AMAÑA
FONTANERIA

BAINUEN INSTALAZIOA ■ SUKALDEA, GASA ETA KALEFAKZIOA
BAINUEN DISEINUA ORDENADOREZ ■ AIRE EGOKITUA

T. Anitua 12 Tel. 943 201 930

Gasa. Kalefakzioa. Klimatizazioa. Eguzki Energia



Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Faxa. 943 254 929

Jardines Iturgintza

Jardiñeta, 11 B *info@fontaneriajardines.net*



ELEKTIBAR, S.L.U.
ELEKTRIZITATEA

PROIEKTUAK
ARGIZTAPENA
INSTALAZIOAK

- * Denetarikoa **ERREFORMAK**
- * **TELEKOMUNIKAZIOAK**
- * **ATE AUTOMATIKOAK**
- * **BERO URDINA**

JOSU BENGOA

Indalezio Ojanguren 2, behea EIBAR
☎ 943 70 05 42 Faxa: 943 53 02 31 *electibar@gmail.com*
Aurrekontuak konpromezurik gabe

Kristal egokiak ondo aukeratu behar dira

Etxean berogailu sistema egokia edukitzea garrantzitsua da neguan goxo-goxo egoteko. Leiho isolatzaile onak izatea garrantzitsua da etxean tenperatura egokia mantentzeaz gain, hileroko faktura aurrezteko aukera izango dugulako. Horretarako leihoaren beraren egiturari ez ezik, kristalei ere arretaz erreparatu behar zaie. Etxean lortu nahi dugun giroaren araberakoak izango dira kristalak, eta merkatuak, aukera bat baino gehiago jartzen ditu eskura.

KRISTAL BIKOITZEKO LEIHOAK

Etxe zaharretan oraindik ere ohikoena kristal bakarreko leihoak edukitzea da. Hala ere, kristal bikoitzeko leihoak orain 20 urte jartzen hasi ziren. Dena dela, kristal bikoitzeko sistema hori zaharkituta geratu dela diote adituek.

Iparraldera begira dauden leihoetan beroa mententzen laguntzen duten kristalak dira egokienak, hegoalderantz daudenetan, aldiz, hobeak dira etxe fresko mantentzen duten horiek. Hozberoa alde batera utzita, badaude isolamendu



akustikoari garrantzia ematen diotenak ere. N-1aren ondoren bizi direlako, tabernaren baten gainean bizi direlako edo trenbidea gertu dutelako, arrazioak asko izan daitezke.

Etxea bero eukitzeko igorpen baxuko kristalak jartzea da egokiena, bero galerak gutxitzeaz gainera, berogailuan aurreztu egiten delako.

Gainera, ingurugiroa zaintzen laguntzen du. Udan etxea fresko mantentzeko eguzki kontrolezko kristalak jartzen dira, udan kanpoko beroa etxera sartzea saihesten dute. Aukeratu den kristal motaren arabera etxe barrura sartzen den eguzki kantitatea %42, %18 edo %15 izatea lortu daiteke, kolore ezberdinetako kristalak erabiltzen dira horretarako. Soinua saihesteko, berriz, bi motatako kristalak jar daitezke: lodiera handikoak erabiltzen ziren garai batean. Baina, gaur egun, krisal laminatuak dira ohikoagoak.

SARGORI

BEROKUNTZAK S.L.

**GAS ETA KALEFAKZIO INSTALAZIOA
ITURGINTZA / MANTENIMENDUA
AIRE EGOKITUA / ATERATZE ETA AIREZTAPENA**

**San Agustin, 2-4 - J lokala
Tel. 943 53 02 01 Faxe. 943 53 15 03**



Zure erosotasuna eta lanen kalitatea, gure izatea

lerreformak@gmail.com
943 70 26 12 - 625 185 122 Txaltxa Zelai, 1-2 behea

- ▼ Erreformak
- ▼ Errehabilitazioa
- ▼ Iturgintza
- ▼ Gasa eta kalefakzioa
- ▼ Gremioen koordinazioa
- ▼ EIT (Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa)
- ▼ Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria
- ▼ Arkitekto Tekniko Lan/Zerbitzuak



ITURGINTZA • GASA • KALEFAKZIOA

**-ERREFORMAK
-ITURGINTZA
-AEROTERMIA**

**-GASA ETA KALEFAKZIOA
-GREMIOEN KOORDINAZIOA
-LURZORU ERRADIATZAILEA**

**Bista Eder, 13
Tel. 629 977 057
fontaneriabravo@gmail.com**



IZARRAITZ LEIHOAK-ERREFORMAK

**Leihoak - Pertsianak - Bainuak
Toldoak - Manparak - Ateak
Parketa - Era guztiko erreformak
Peoren konponketa...**

**Bidebarrieta, 48
Tel. 943 25 60 26**

**EIBAR (SONIA)
ventanas-izarraitz.eibar@hotmail.com**

Ur-berogailua eta galdara

GALDARA

Berokuntza-zirkuitura bidaliko duen ura berotzeko, gasa erretzen duen atresna bero-produzitzaileria da galdara.

Normalean komertzializatzen diren galdarak mistoak izaten dira, etxeko ur beroa eta berokuntza aldi berean sortzen dutenak, baina berokuntzarako bakarrik diren galdarak ere badaude, etxeko ur beroa beste sistema baten bidez lortzen den kasuetarako.



Galdarekin gertatzen den bezala, hiru motatako berogailuak daude, kea-husteko sistemaren arabera:

- **Atmosferikoak edo tiro naturalekoak:** Errekuntza-hondakinak gorantz joaten dira tenperatura-diferentziagatik eta zuzenean kanpora ateratzeko bidetik (tximiniatik) irteten dira. Tximinia indibiduala izan daiteke edo eraikin guztirako kolektiboa (shunt).

- **Tiro behartukoak:** Aparatu barruan instalatutako haizagailu batek kanpora botatzen ditu errekuntza-hondakinak, eta horrela husten dira. Etxebizitzaren ke-husteko bide edo tximiniaren efika-

ziari buruzko zalantza dagoenean jartzea gomendatzen da. Araudiak ez du uzten era honetako galdarak eraikineko tximinia kolektiboetara (shunt) konektatzen.

- **Estankoak:** Aparatu barruan instalatutako haizagailu batek kanpora botatzen ditu errekuntza-hondakinak, eta horrela husten dira. Gainera, airea hartzeko beste bide bat ere izaten dute, errekuntzarako behar den airea kanpotik hartzeko. Horregatik, errekuntzari dagokionez, aparatua etxebizitzatik edo lokaletik kanpora instalatuta egongo balitz bezala da. Errekuntza eta ke-huste egokia gehien garantizatzen duen aparatua da, eta gainera bainugeletan, komunetan, logetan... instalatu daitekeen bakarra...

UR-BEROGAILUA

Ur-berogailuak gasa erretzen du etxeko edozein txorrotatik eskatzen dugun ura berotzeko. Ur beroa eskatzen zaiola dektatzen duenean, martxan jartzen da une horretan bertan ur beroa sortzeko, bapatezko ur beroa lortzeko. Etxean zenbat bainugela eta zenbat erabiltzaile dauden kontuan izanda, ur beroa bapatean produzitzeko kapazitate egokiko ur-berogailua aukeratu beharko da (5 litrotik hasi eta 20 edo 30 litro artekoak daude).

Ur bero asko behar baldin bada, ur-berogailuaren lagungarri gisa metagailu bat jartzea gomendatzen da. Batzuetan, ur-berogailuaren ordez galdara mistoa jartzen da, ur beroa eta berokuntza aldi berean sortzen dituenak.



IGAKRISTALDEGIA

KRISTALDEGIAK

TAILER ETA BULEGOAK: Legarre, 15 -EIBAR-
Tfnoak. 943 70 25 41 / 670 21 46 25 Faxa. 943 70 24 95

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Birjiñape, 1 behe Tfnoa. 943 20 20 40
cristaleriaiga@gmail.com

TAILERRA:
Errekatxu, 3


CLIMALITekin isolatzaile onena lortuko duzu akristalamendu bikoitzaz

ACHA Kristaldegia

ERAKUSKETA: eta faxa: 943 20 39 03
Arikixaneko Zubian info@cristaleriaacha.com

VENTANAS ONA[®] LEIHOAK

- AROZTEGI METALIKOA, PVC ETA MISTOA.
- KONPONKETA ETA MANTENIMENDU ZERBITZUA.



Bidebarrieta, 28 - behe
Tel. eta Faxa: 943 20 28 28
Mugikorra: 653 113 309 / 688 695 415
info@ventanasona.com / www.ventanasona.com

METALEZKO ERAIKUNTZAK ALUMINIOZKO ETA PVC-KO AROZTEGIA

1984an sortua. Aluminio, PVC eta aluminio-egurrezko leihoen fabrikazioa. Lan mota guztiak honako esparruetan: burdin eta altzairu herdoilgaitza, ateak, barandak, makinendako babesak, tximiniak, nabarrak, etb.



Txonta, 30 - 1. eta behe

Tfnoak: 943 12 13 67

Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
Urkizu, 26

Tfnoak: 943 12 74 01

info@ulmar.net www.ulmar.net



Saray Garzia (dantzaria)

“Ez dut ikusten nire bizitza **dantzatik** aparte”

Gizarte langile moduan urtebete lanean ibili eta gero bihotzari egin zion kasu Saray Garziak. Dantza barruan darama eta Madrilera joan zen bere ametsa betetzera. Zazpi urte daramatza han eta, formakuntza jaso ondoren, hamaika lanetan ibili da (eta dabil) dantzaren mundu zailean. Euskal Herrian ere ikusi ahal izan dugu 28 urteko eibartarra, Gazte Dantzaren Epaimahaiaren Saria eskuratu baitu Let's Jazz taldearekin.

- Nola sartu zinen dantzaren munduan?

Zortzi urterekin Nerea Lodosarekin hasi nintzen kiroldegian eta 18 urterekin Bilbora joan nintzen jazz klaseak jasotzera, teknika hobetzeko asmoz. Hip hopeko monitorea izateko ikastaroa ere egin nuen han, eta arlo bi horietan eta kaleko dantzan formakuntza hartzen joan nintzen. Bestetik, Gizarte Hezkuntzako karrera burutu eta urtebete egin nuen lan hezitzaile moduan. Hala ere, dantzaren kontua barrenean neraman eta ez nekien zein bide hartu. Dantzarekiko apustua egiteko gogoia neukan, baina baita beldurra ere. Nagusiegia nintzela eta zaila izango zela pentsatzen nuen, baina dantzaren bidea hartu eta Madrilera etorri nintzen.

- Zein eskolatan hasi zinen Madrilen?

Carmen Roche kontserbatorioan. Dantza modernoaren inguruko formazioa jaso nuen hiru hilabetean. Lau urtekoa zen, baina garestia iruditzen zitzaidan eta maila nahiko baxua zen. Ireki berri zuten beste eskola baten berri izan nuen, Madrid Dance Center, eta bi urte egin nituen han. Eskola hori bitan zatitu zen eta bertako irakasle batzuk beste proiektu bat jarri zuten martxan, Danza 180 grados, eta beste urte bi egon nintzen han. Dantza modernoaren eta garaikidearen inguruko programa jarraitu nuen bietan, batak bestearen ildo jarraitzen zuelako. Bosgarren urtean Laboratorio 180 programan sartu nintzen dantza garaikidearen inguruan praktikak egiteko.

- Zer egokitu zitzaizun egitea programa horren barruan?

Urte guztian nazio mailako zein nazioarteko koreografoak etortzen ziren hilero eta pie-



za labur bat prestatzen genuen taldeka. Urte amaiera pieza guzti horien erakusketa egin genuen eta Madrilgo koreografo, irakasle eta dantzariak gonbidatzen zituzten bertara. Zerbait profesionalagoa zen ikasleak izanik.

- Zaila da dantzaren munduan lana aurkitu eta jardutea?

Lan asko egin, asko mugitu eta oso aktiboa izan beharduzu. Ikaskide batzuekin talde bat sortu genuen eta koreografiak montatzen hasi ginen. Lana aurkitu genuen Madrilgo kabaret batean eta bi urte egon gara han. Bestetik, konpainia bat sortu dut lagun batekin, Kameleoi Danza, eta hiru kide gara orain. Dantza garaikidea egiten dugu eta pieza bat sortzen gabiltza. Beste alde batetik, dlcAaos konpainiarekin Manuela Barreroren *I'll be your mirror* piezan ibili naiz, eta Eibarren aurkeztu ahal izatea gustatuko litzaidake. Horrez gain, Ana Tamarizen magia ikuskizunean ere lan egin dut, telebistan ere agertu izan naiz, antzerki baterako behar zuten proiektio baterako dantza egin dut... lan asko irten zaizkit.

- Dantzaren aldeko apustua ondo irten zaizu?

Oso pozik nago, ez nuke ezer aldatuko. Madrilera etortzea eta bide hau hartzea erabaki onena izan dela esango nuke. Ez dut ikusten nire bizitza dantzatik aparte edo dantzarekin zerikusia duen zerbait egin barik.

- Euskal Herrian lan egiteko aukera ikusten duzu?

Bai, zergatik ez? Gainera, maite dudan jende guztia han dago. Etapa kontua da, eta orain Madrilen nago eta bidea egin dut hemen. Badakit non hasi naizen, baina ez dakit non amaituko dudan.

www.aldatze.eus

aldatze



VII. ALDATZE
DENOK GARA
otsailaren 3an
11.00etan



EUSKARABENTURA espedizioa egiteko gazte euskaldun bila

EuskarAbentura elkarteak 2018ko uztailan Euskal Herriko herrialde guztiak zeharkatuko dituen espedizio gaztea abiatuko du. Done Jakue bideak jarraituz eta Unescok izendatutako gizateriaren ondareetatik igaroaz, 16-17 urteko 120 gaztek esperientzia ahaztezina biziko dute datorren udan. Ruta Quetzal izandakoak inspiratuta jaio da EuskarAbentura egitasmoa eta 16 eta 17 urteko gazte euskaldunentzako da. Euskal Herriko 7 herrialdeetako eta diasporako gazteek osatuko dute espedizio taldea. Euskaraz dakien edozein gaztek hartu dezake parte, berdindio nongoa den eta ez da matrikula-kuotarik ordaindu beharko.



Espedizioa uztailaren 1ean abiatuko da Mauletik, Done Jakue bidearen ibilbide Fran-

tsesa jarraituz, Donibane Garazi eta Iruñetik igaro eta Viaraino. Bertatik autobus ba-

tek Donemiliaga Kukulara eramango ditu abenturazaleak. Bertan orain arte aurkitu diren euskarazko idazki zaharrenak ikusi ahal izango dituzte. Hain zuzen ere, bertan agertutako esaldietako bat, "izioqui dugu" EuskarAbenturaren aurkezpen gutun modura hartu dute antolatzaileek, euren berbetan, "glosak ezagutzera emateaz gain egitasmoaren izpirituarekin oso bat datorrelako: piztuko dugu; bidea piztu, hizkuntza piztu, etorkizun diren gazteak piztu". Informazio gehiagorako eta izena emateko www.euskarabentura.eus webgurena jo daiteke (izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da).

VII.FERIA IKASENPRESA AZOKA

2018ko Otsailak 1

10:30 / 13:30 · EIBAR · UNTZAGA PLAZA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEK SORTUTAKO ERA GUZTIETAKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK!

Zer da IKASENPRESA?

TKNIKAK koordinatuta, Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzeko burutzen den Heziketa proiektua da.

#feriaikasenpresa @ekingune



VIVIANE STRAUB: "No/rica, bai aberatsa".

“Gehiago ikasi dut bi hilabete lan egiten, hiru urtean ikasten baino”. Zenbat aldiz entzun ditugu horrelako (edo antzeko) baieztapenak? Ikasten aritzetik lan egitera igarotzeko orduan jauzi nabarmena igartzen dute askok. Salto hori leundu eta lan munduan sartu aurretik proiektu propioak garatzeko asmoz, eskoletan enpresak sortzeko aukera ematen die Ikasapresak ikasleei.



Ikasapresa, eginez ikasi

Otsailaren 1ean EAEko Lanbide Heziketako ikasleek sortutako zerbitzu eta produktuen Ikasapresa Azoka jasoko du Untzagak 10:30etik 13:30era. VII. edizioa izango da aurtengoa eta, Teknikak ordenatuta, 320 ikasapresatik gora egongo dira karpa bitan banatuta, iaz baino ehun gehiago. Ikasurte honetan 600 ikasapresatik gora sortu dituzte EAE-ko LH zentroetan, eta 4.000 bat ikasle eta 170 irakasle inguruk jardun dute lanean.

Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea bultzatzeko asmoarekin garatzen den heziketa proiektua da Ikasapresa, eta horren harira antolatzen dute azoka. Hezikuntza-programa honen helburua enpresaren mundua ikasgeletara hurbiltzea eta gaitasun ekintzaileen garapena sustatzea da. Sormena, berrikuntza, talde-lana, erabakiak hartzea, ekimena, lidergoia, konpromisoa, irrotasuna eta negoziatzea lantzen dira, bes-

teak beste. Horrez gain, beste kultura eta gizarte-errealitate batzuetara hurbildu nahi da ikaslea, eta ikastetxeen arteko elkarlana sustatu. Autoenplegua aukera bat gehiago dela erakutsi nahi zaie ikasleei, profesional onak izateko kompetentziak garatzeko aukerak emateaz gain.

Metodologia praktikoa

Ikasapresak hezikuntza-testuinguru berri-tzailea sortu eta ikaskuntza-metodologia praktikoa erabiltzen du. Ikasleak euren errotasun-gunetik irtetera behartzen dituzte, lan-merkatura irteterakoan aurrean izango dituzten egoera edo arazoei aurre egiteko.

Lanbide Heziketako ikasleek enpresa txikiak sortzen dituzte Ikasapresan eta enpresa horiek sortzeko beharrezko ekintzak garatzen dira. Irudi korporatiboa sortzen dute eta administrazio, marketing eta salerosketa arloak lantzen dituzte, besteak beste. Ikasleen

produktuak benetakoak izaten dira, eurek sortu eta banatutakoak.

Egitasmoa martxan jartzeko orduan aholku eta laguntzak jasotzen dituzte ikasleek, nondik nora joan eta zein arlo jorratu behar duten argiago edukitzeko. Gainera, komunikazioari eta salmenta postuei buruzko tailer-rrak jasotzen dituzte eurekin egiten diren lehen bileretan. Ondoren, taldeek proiektuak garatu ondoren, otsailaren 1ean Eibarrek jasoko duen azoka egiten da, salmenta tokien inguruan lan egin eta euren produktu edo zerbitzuak eskaintzeko.

I. Ikasapresa Kongresua

Aurten lehen aldiz egin da Ikasapresa Kongresua. Euskadiko Lanbide Heziketako 570 ikasle inguruk hartu zuten parte abenduaren 11tik 18ra Donostia, Barakaldo eta Gasteizen egindako bilguneetan, eta ‘Izan ekintzaile!’ izan zen lehen edizioaren goiburua. Sareko lankidetzak sustatzea izan zen kongresuaren helburu nagusia eta, hori bultzatzeko asmoz, ikasleak elkarrekin lan egiteko elkartu ziren zenbait tailerretan parte hartzeko. Ikasapresen berri emateaz gainera, euren ametsak azaltzeko aukera izan zuten ikasleek. Bestalde, negozio ideia bat aurrera eramateko oinarriko finantza-eragileak ere ikasi zituzten. Azken batean, lan-mundua irudikatu eta protagonisten ahotik ekintzaile-bizipenen berri izateko aukera izan zuten kongresuan.



Fe Guede Conde (ANGEL VILA VILAREN ALARGUNA) 2018ko urtarrilaren 12an hil zen

Bere seme-alabak: Conchi eta Jesus Mari Barrenetxea; Luis eta Amaia Urizar. Hilobak: Etor (+), Ekaitz eta Cristina, Ane eta Martin, Ainhoa, Mirari, eta gainerako senideek ...

ESKERRIK BEROENA, nahigabean gurekin sentitu zaituztegun guztioi.



Mendizaleek Gaztaren Ibilbideari ekin zioten

Aurreko asteko zapatuan egin zuten Klub Deportiboko Mendi taldekoek antolatutako Gaztaren Ibilbidearen lehenengo etapa, 40 bat lagun bildu zituen txangoan. Goizean Lizarrustitik atera eta Aralarreko parke naturalean zehar ibili ziren, Gaztaren Ibilbidearen markei jarraituz eta, Lareoko urtegia pasatu ondoren, goiko zelaietara iritsi ziren. "Artaldeko" bazuendako bide errazegia izango zen akaso, eta Txindokira (1.346 m) eta Ausa gaztelura (901 m) igotzera animatu ziren, gero berriz ibilbidera bueltatzeko. Eguraldi aldetik "espero baino hobea geratu" zela diote, hasieran argia eta euri barik "eguerdira arte aterri" ibili ahal izan zirelako. Izan zuten txarrena "lokatza eta lur labaingarria" izan zen. Txangoaren amaieran Idiazabalgo gazta bat zozketatu zuten partehartzaileen artean eta Libia Alzola izan zen zorionekoa.



Perico Iriondo

Bigarren etapa otsailaren 3an

Hemendik astebetera, datorren asteko zapatuan, Gaztaren Ibilbidearen bigarren etapa egingo dute. Otsailaren 3ko horretan bi aukera izango dituzte txangoan izena ematen dutenek: ofiziala deitu daitekeena eta Deporrekoa bestea (tontor batek pasatzen dena), oraingoan Arantzu-

mendiko gainera. Eta gazta ere zozketatu dute, partaide guztien artean. Ordiziatik Seguraraino joango den etapa horrek 13 kilometro ditu, "gutxi gorabehera lau ordutan egitekoa" (Arantzumendira igota, 20 kilometro). Txindoki, Goierri gobernatzen duen granitozko piramidea, izango da etapa osoko zaindaria eta erreferentea.



Waterpoloko gizonen taldea Euskal Herriko Kopako azpitxapeldun

Iazko edizioan Urbateko emakumezkoen taldeak Euskal Herriko Kopako txapela eskuratu zuen moduan, oraingoan gizonen taldea izan da oso gertu izan duena balentria hori errealitate bihurtzea. Aurreko asteburuan Portugaleten jokatutako final-fourrean eibartarren maila bikaina erakutsi zuten eta, finalerdietan Leioari 14-5 irabazi eta gero, finalean 9-8 galdu zuten gaur egun Ligako liderra den Portugaleteko Nauticorekin. Gehiago oraindik: atsendaldian eibartarrek 6-3 gal-

utzen bazuten ere, azken laurdenean 7-8 aurretik ipintzea lortu zuten, azkenean amore eman behar izan bazuten ere. Davide Cerchi prestatzaile nagusia bera harro dago taldeak erakutsitako mailarekin. Zilarra bereganatu zuen taldea honako hamahiru jokalarik osatu zuten: Izei Sologaistua, Mikel Albizuri, Mikel Basterrika, Unai Etxaburu, Manex Dominguez, Oier Lete, Alan Moya, Igor Sanz, Jol Sologaistua, Ekhi Sologaistua, Igor Sanz, Eneko Treviño, Jon Treviño eta Joseba Urkia.

Eskubaloiko kadeteen arteko derbia Komat-entzat izan zen

Aurreko asteburuan Eibar Eskubaloiko bi taldeen arteko lehia izan zen, kadeteen mailari zegokion norgehiagokan. Partidu horretan Komat-ek 30-27 irabazi zion Teknikerri. Maila bereko nesken talde biek garaipenekin amaitu zuten jardunaldia, Aialari eta Hernaniri nagusitasunez irabazita. Talde nagusiei dagokienez, bi garaipen eta porrot bat jaso zuten Eibar Eskubaloikoek. Euskadiko txapelketa jokatzen duen Avia Eibar eskubaloia emakumezkoen taldeak 27-23 irabazi zion Munttarperi eta gizonen bigarren taldeak, Gipuzkoako 1. Mailan jokatzen duen Haritzak, garaipen erraza eskuratu zuen Soraluzeren aurrean (36-25) Ipuruan. Kale egin zuena Somos Eibar Eskubaloia lehen taldea izan zen, Elgoibarren amore eman baitzuen zortzi golengatik (26-18) hango Alcorta Forging-en aurrean.



Taldea nagusia Elgoibarko Alcorta baino gutxiago izan zen.



Sei autobus joango dira gaur San Mamesera

Premier Bidaiak Eibar FT-ren agentzia ofizialak sei autobus, 300 zaletuekin, antolatu ditu gaur San Mamesen 21:00etan jokatuko den partidurako. Mendilbarren taldeak Paulo Oliveira atzelariaren eta Sergi Enrich aurrelariaren bajak ditu partidurako; hala ere, Malagarekin Ipuruan berdindu eta gero, bigarren itzulerako lehen garaipenaren bila irtingo dira Bilbon. Orain arte 1. Mailan jokatutako norgehiagoketan, bilbotarrek bitan irabazi dute eta bestean berdinketa eman zen. Hori bai, sailkapenean eibartarrak aurretik daude, Athletic-ek baino bi puntu gehiagorekin. Aipatutako min hartutakoak ordezkatzeko, Ramis atzean eta Kike Garzia aurrean izan daitezke aukeratuak, baina Zaldibarko prestatzaileak baditu beste aukera batzuk ere. Orellana eta Pape Diop neguko fitxaketak ate joka daude dagoeneko.



Ipurua klubak hiru hamarkada beteko ditu

1988ko irailean sortu zen gimnasia erritmikoko Ipurua kluba eta une gozoan ospatuko ditu 30 urteak, estatuko kirol modalitate horretako erreferente bihurtuta. Gaur egun 21 gimnasta federatu ditu klubak, *"datozen sei hilabeteetan su eta ke borrokan lehiatuko dutenak Espainiako banakako eta taldekako txapelketan parte hartzeko sailkapenaren bila"*. Amateur eta eskola mailakoez ez dute itxaropen gutxiago eta maila horietan lehiatzen duten 60 bat gimnastek *"otsailaren lehen asteburuan hasiko*

diren probintzia mailako txapelketetara ekingo diete".

Aurrekoek gain, Eibar Foball Taldearen Fundazioak herriko klubekin sinatutako hitzarmenari esker, Ipuruako gimnastek aurten diru-laguntzaren kopuru bikoitza jasoko dute honako hau Udalak eskaintzen dionari gehituta. Eta, berri onekin jarraitzeko, Gabonetako loterian ere klubaren partizipazioak erosi zituztenek jokatutakoa jasotzeko aukera dute, *"Banco Sabadell-ek Bidebarrieta kalean duen bulegoan"*.

Eibar Rugbyko talde guztiak martxa betean azken asteburuetan

Hainbat mailetako lehiaketetan dihardutenekin batera, **betaranoek ere aurreko asteburua** aprobetxatu zuten La Unica Rugby Taldeari bisita egiteko Iruñean, modu horretan ekainean nafarrek hona egindakoa itzuliz. Eguraldi kaskarra espero bazen ere, *"errugbiaz gozatzeko giro aparta"* izan zutela diote ERTko Putrezaharrek. Eibartarren taldea Patxi, Badi, Vicu, Lape, Bomba, Txantxo, Killer, Unax, Ehari, Aaron, Kapi eta Manolok osatu zuten, nafarrek lagatako beste hiru jokalariekin batera. Hiru entsegu lortu zituzten (Aaron, Kapi eta Killer) eta bi bakarrik La Unicakoek.

Horrez gain, Ohorezko B Mailako lehen taldeak 25-17 irabaziz Unben Campus Ourenseri eta sailkapenean gora egiten jarduten du, azken denboraldietako estutasunak ahaztuta. Euskal Ligako 2. Mailan jokatzen duen taldeak 57-10 galdu zuen Gasteizen Escor Gaztedi B-rekin. Emakumezkoen taldeak ez zuten



Putrezaharrek aspaldiko sentsazioak berreskuratu zituzten Iruñean.

partidurik jokatu azken asteburuan, baina taldeko bost jokalaririk (Amairu Mayo, Idoia Jauregi, Kaiane Bedonez, Jone Agirrezabal eta Lucia Moya) deitu ditu Euskadiko selekzioak martxoaren 7an eta 8an La Rochellen jokatzeko.

JULIO ORUETA ARRIETA

2018ko urtarrilaren 18an hil zen, 60 urterekin



Familiaren izenean, **ESKERRIK BEROENA**
gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi.





Gloria Fuertesi ikasitako poemak adaptazio libreak egin ditu Maite Arroitajauregik, Mursegok, eta Coliseoan taularatuko ditu gaur 20:30ean. Poeta madrildarraren testuak irakurritakoan sentitutakoa islatzen saiatuko da eta ohikoenez maisutasunez maneiatzen dituen doinu eta soinua erabiliko ditu. Libre, Fuertes ere horrela izatea gustatuko litzaioke. Bere herrikideek lana nola hartuko duten beldur bada ere, saioak jaso dituen kritikak ezin bikainagoak dira, Mursegok egin duen guztiarekin (edo ia) bezala.



MAITE ARROITAJAUREGI:

“Ikuskizuna Gloria Fuertes gustatuko zaiola pentsatzea da nire fantasia”

- Gloria Fuertes poemak errezitatu, musikatu eta rapeatuko dituzu Coliseoan. Nola flowa dauka Fuertesek?

Bere poema asko errimatuak ziren, beraz badauka lotura bat rap musikarekin. Nahiko rapeableak dira bere poemak egiturak.

- Beti imajinatu dituzu rap moduan edo proiektuarekin sortu den zerbait izan da?

Ikuskizuna prestatzean modu naturalean irten zen. Poemak taularatzeko abestu, errezitatu edo hitz-jokoak egin ditzakezu, eta rapa ere beste modu bat da. Hitzek garrantzia handia daukate rap eta hip-hopean.

- Zer dauka Gloria Fuertesek bere poemekin horrelako ikuskizun bat prestatzeko?

Nigan izan duen eragina memorian geratu zait. Etxean bere liburuak genituen eta gurasoek irakurri egiten zizkidaten txikit. Nagusi egin naizenean berriz berreskuratu dut Gloria Fuertes, baina kasu honetan helduentzat idatzitako poema-liburuengatik. Asko gustatzen zait bere hizkera, gauzak nola kontatzen dituen. Gertuko hizkera da. Gaiak ere interesgarriak iruditzen zaizkit. Bizitzari buruz egiten du berba. Gai unibertsalak dira, baina horiek tratatzeko modua oso interesgarria da

eta gauza askorekin identifikatuta sentitzen naiz. Tonua, ironia eta umorea nola erabiltzen dituen oso interesgarria da. Umorea arma moduan erabiltzen du, gauzak aldarrikatzeko, eta horren zalea naiz. Nire egiteko moduan eta nire musikan ere umorea erabiltzen dut, zerbait eragiteko baliabide moduan. Errimaren kontuan ere, kantuak egin arte ez nintzen hainbeste fijatzen, baina errimak asko gustatzen zaizkit. Testuak errimatzea oso berezia da, eta berak hain ondo errimatzen zuen... Testuak musikatu egiten dira, beste dimentsio bat hartzen dute errimarekin.

- Fuertes obra mardula da. Nola egin duzu bere poemak aukeraketa?

2014an, Donostiako Koldo Mitxelena programazioaren barruan, Beñat Sarasola eta Jon Benitori Berrirakurtzen zikloa antolatzea enkargatu zieten. Artista bat gonbidatzen zuten astero, eta guk liburu bat hartu eta horren berrirakurketa pertsonala egin behar genuen. Nik Gloria Fuertes aukeratu nuen, bere 'Historias de Gloria Amor, humor y desamor' antologia zehazki. Nahiko autobiografikoa da eta bere gaztaroa, Gerra Zibila nola bizi izan zuen eta desamodioak azaltzen dira bertan.

- Koldo Mitxelena egindako saio horretatik Coliseoan aurkeztuko duzun erabakia egon da?

Ikuskizun hau Bilboko Izar & Star zirkloan, Gasteizko Proklaman eta Arrasateko liburutegian eskaini dut bakarrik. Gauza batzuk gehitu eta hobetu ditut, borobildu, baina esentzian berdina da.

- Aurten 101 urte beteko zituen Gloria Fuertesek. Berak lantzen zituen gaiak gaur egunekoak izaten jarraitzen dute?

Oso! Denuntzia soziala egiten zuen bere idatzietan, gai sozialak tratatzen zituen. Aldarrikapen soziala egiten zuen eta gai horiek gaur egunekoak dira erabat.

- Nolabaiteko ardurak sentitu duzu Gloria bezalako autore bat musikatzeagatik?

Ez, nire lan guztietan bezala gauzak ahalik eta ondoen egiten saiatu naiz: poema bakoitzari kutsu ezberdina ematen, testua eta musika koherenteak eginez, eta oso libre sentitu naiz. Bere poemekin lan egiten duen norbait libre sentitzea gustatuko litzaiokeela uste dut. Barixakuan egingo dudana berari gustatuko zaiola pentsatzea da nire fantasia. Bere lana eta bera nolako zen ikusita, baietz uste dut.

- *Gloria Fuertes albo batera utzita, musikatik haratago doan '%100 Oion' proiektua aurkeztu zenuen 2017an. Nolako lana izan zen?*

Oiongo herrian elkarbizitza sustatzeko proiektua izan zen. Etorkin- eta langabezia-tasa handia dago han. Esperientzia berria izan zen, inoiz ez dudalako lan egin hainbeste jenderekin. Politia eta oso gogorra izan zen, eta asko ikasi nuen. Musikalki nola aterako zen kezkatzen ninduen, jende amateurrarekin egin nuelako lan, herriko jendearekin. Profesionalak ez zirela argi edukita, herritarrek parte-hartzea eta zerbaitekin konprometitzea zen helburua. Egin zuten lanaz harro egotea lortu genuen eta pozik nago emaitzarekin. Herri baten kantua da eta herrien kantuek horrelakoak dira, inperfektuak. Gloria Fuertes ere gustatuko litzaiokeela pentsatzen dut.

- *Nacho Vegasai bai, behintzat. 2017ko disko onena dela esan du.*

Nacho Vegas ere Gloria Fuertesena zalea da. Berrirakurketa bidali nion eta asko gustatu zitzaion. PAHren (Hipotekak Kalteturikoan Plataforma) aldeko diskoan Gloria Fuertesena poema bat moldatu zuen. Niri behintzat Gloria Fuertes asko gustatzen zait eta asko gozatzen dut, baina Eibarko jendeak ikuskizuna nola hartuko duen beldurra daukat.

- *Publikoaren erantzuna nolakoa izan da aurreko ikuskizunetan? Kritikak bikainak izan dira.*

Lehen saioaren harira Koldo Almandozek Berrian idatzi zuen kritikarekin negar egin nuen, eta Twitterren aipatu zuten Gloria Fuertes Koldo Mitxelenan egon zela. Arrasaten ere jendea oso pozik irten zen.



**“MURSEGO
 jolas moduan
 hasi zen
 eta ogibide
 bihurtu da”**

- *Zaila da norberaren herrian profeta izatearena?*

Bai. Eszenatokian hain libre sentitzen naiz batzuetan... Batzuk pentsatuko dute zoraturta nagoela, baina berdin zait, sentitzen dudana egiten dudalako. Zoramen hori herrian erakusteak, ordea, lotsa gehiago ematen dit. Onartu behar dut ikuskizunaren amaiera libreagoa zela, eta klasikoagoa egingo dudala Eibarren.

- *Mursegok 2009an zabaldu zituen hegoak. Nolako bidea egin du orain arte?*

Jolas moduan hasi zen eta ogibide bihurtu da. Nire diskoak sortzeaz gain jende askorekin kolaboratu dut. 'Porto' egiten nabil iaiztik Harkaitz Canorekin, Ixiar Rozasekin beste lan batean nabil, dantza pieza baterako musika egiten nabil, pelikuletan egin dut

lan, Iruñako Ikusmira jaialdiaren itxieran grabatuko den bideo bati musika jarriko diot... gauza asko dira eta asko gustatzen zait gauza ezberdinak egitea. Oiongoaren harira, bestetik, Tabakalerako hezkuntza sailarekin nabil eta musika espresioak lantzen ari naiz gazte etorkinekin. Kantu eta bideo bana egitea da asmoa.

- *Bat (1), Bi (2) eta Hiru (3) diskoen ostean, Lau (4) diskoa sortuko du Mursegok?*

Ez dakit noiz, baina bai. Kantuak bereziki Mursegorentzat egin ez arren, sortzen ditudan hainbat gauza berreskuratzen ditut. Badiot kantu batzuk eta zerbait motza egin dezaket orain, EP bat, baina itxaron egingo dut agian. Baliteke uda ostean grabatzea, baina aurtengoa demaseko bajoia izan da. Diskoak ez dira saltzen.



PUBLI RESA
objeto publicitario

publiresa@publiresa.com

Armagin, 3-5 beheak

merchandising

serigrafia

lanerako erropa

943 701 497 / 615 799 419

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
 ITZULTZEN DITUGU,
 euskaratik gaztelarrera,
 gaztelaratik euskarara,
 eta ingelesetik euskarara.

ZERBITZUA

elkartea@etakitto.eus



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean




24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

GRUPO **funeuskadi**



JOSE RONCO
(argazkilaria)

“Kamera analogikoek beste dimentsio bat ematen diote argazkiari”

Zarauzko Photomuseumak John Berger omentzeko *Modos de ver* izeneko argazki-erakusketa jasoko du otsailaren 11ra arte. Hainbat pertsonen hartu dute parte proiektu honetan, tartean bi eibartarrek. José Ronco argazkilaria beste taldekideen erretratuak egin ditu, eta Mikel Iriondo filosofo eibartarra argazkiekin batera doazen testuak idazteaz arduratu da. Liburu bat argitaratu dute, baina agortu egin da dagoeneko.

- John Berger omentzeko erakusketa antolatu duzue. Nola sortu zen ideia?

Hainbat taldekideek bere liburuak irakurri, bere programak jarraitu eta BBCK bere inguruan egindako dokumentalak ikusi zituzten, eta hortik irten da erakusketa egiteko asmoa. Taldeko kide bakoitzak nahi zuena egiteko proposamena jaso genuen lagun baten eskutik. Orain dela urtebete batu ginen taldekoak eta lagunak esandakoa egin genuen. Gero, bakoitzak bere lanak ekarri eta gai amankomun baten inguruan antolatu genituen argazkiak.

- Zergatik John Berger? Nolakoa da bere dimentsioa?

John Berger idazlea izan zen eta *Ways of seeing* (Ikusteko moduak) izeneko telebista saio bat izan zuen Amerikako Estatu Batuetan (AEB). Artelan bat nola manipulatzen zen kritikatu edo epaitzen zuen bertan, gainetik esanda. Arte kritikaria eta margolaria ere izan zen.

- Nola lortu duzue bakoitzak bere aldetik lan eginda lan bateratua osatzea?

Gurekin lan egin duen Jesus Mari Sarasua komisarioak hasieran esan zuen gure asmoa ezinezkoa zela. Eta hori 30 urteko esperientzia duela! Gero, taldekideak elkartzen joan eta gauzak bat etortzen joan ziren. Komisarioak liburuaren egitura jarraitu du erakusketa montatzeko orduan eta koherentzia dago.

- Teknika analogikoa digitalarekin uzartu duzu. Nola?

Formatu erdiko (6x6) kamera analogikoarekin egin ditut hartzeak eta, gero, negatiboak kamera digitalarekin erreproduzitu ditut, eskaneatu beharrean. Negatiboa argi-kaxa batean jarri, erreproduzitu eta irudi digitala lortzen dut. Gero, baliabide digitalak erabil ditut argazkiak editatzeko.

- Argazkilaritza digitalak analogikoa jan du, baina oraindik badago tokia analogikoarentzat?

Bientzat tokia dago. Nik biak uzartzen ditut. Hasselblad kamera bat daukat eta erretratoak egiteko erabiltzen dut. Hauspo-kamera ere badaukat nire jostailuen artean. Erretratoak egiteko berezia da kamera analogikoarekin lan egitea eta edonor liluratzen duten soinua daukate. Errepetatu egiten zaituzte horrelako kamera batekin ikusten zaituztenean eta posatzen dagoena distrahituta egoten da. Kamera analogikoek beste dimentsio bat ematen diote argazkiari, ez dira hain arinak.

- Bergerren harira erreflexio eta pazientzia aldarrikatzen duzue. Hori galdu da argazkilaritza digitalarekin?

Beste modura egiten da lan analogikoarekin. Hauspo-plakekin argazkiak egiten ditudanean sei fotograma eramaten ditut; beraz, ez ditut hamabi argazki baino gehiago ateratzen. Argazkilaritzan aspalditik gabiltzanok ez daukagu hain atzamar bizia, ez gaude ohituta erabakiak hain arin hartzera.

Artile artean joan zen Illunabarrian saioa

Primeran ibili ziren eguaztenean ...eta kitto! Euskara Elkar-tearen eskutik egin zen artile-tailerrerako izena eman zutenek. Taldean adin guztietako kideek egin zuten bat eta, Alluitz Naturatik etorri zen irakaslearen azalpen guztiak adi-adi entzuten egon eta gero, artilea lantzeari ekin zioten eta, amaitu aurretik, pelotaxoak, pultserak eta beste hainbat gauza egin zituzten.



Mozorro-tailerra egin du ...eta kitto!-k guraso berbalagunentzako

Aurtengo Aratosteak ate-joka ditugula eta, ...eta kitto! Euskara Elkar-teak guraso berbalagunentzat eta horien seme-alabentzat mozerro-tailerra antolatu zuen aurreko barixakurako. Hainbat ereduren artean aukeratu eta gero, norberak bere lanari ekin zion. Oso modu errazean eta material gutxirekin mozerro dotoreak egin zituzten.



Zapatuko ipuinak umeentzako hiru istorio eskainiko ditu

Oihana Etxegibel Alberdik hiru ipuin kontatuko ditu bihar, Zapatuko Ipuina egitasmoaren barruan antolatutako saioan. "Bi animalia larri, tontolapiko bat eta poesia..." izenburuari jarraituta, haize burrunbilo batek mando zuri baten itxurakoa bilakatzen duen zebra baten istorioa, urrez betetako zakua aurkitzen duen oilasko erdi lumatuarena eta hurrek barre egiten zioten Tontolapiko izeneko mutikoarena kontatuko ditu. 4 urtetik gorako hurrei zuzendutako saioa izango da, 18:00etan hasiko da, umeen liburutegian, eta sarrera librea izango da.



Euskeraren transmisioaz jardun zuen berbetan Paula Kasaresek

Martitzenean Paula Kasares soziolinguista eta irakaslea egon zen Portalean, Eibarren AKEBAL plataformaren ekimenez antolatutako saioan hitzaldia ematen. "Hamaika Berbaldi" egitasmoari lotutako ekitaldian "Umeak euskaldun haztea helburu" izenburuari jarraituta jardun zuen berbetan. Hizkuntzaren transmisioan aditua den Kasaresek, besteak beste, hizkuntzen biziraupenerako transmisioak duen garrantzia eta gurasoen jarrerak eta inguruneak umeei nola eragiten dieten aipatu zituen hizaldian. Amaieran, joandakoen galderak gustora asko erantzun zituen.

Santa Ageda kalejira Sostoarekin

Urteroko moduan, aurten ere kalejiran irtengo dira Sostoa abesbatzako kideak Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, eta eurekin batera joan nahi dutenentzat entseguak egingo dituzte datorren astean, astelehen eta eguaztenean, 21:00etan Musika Eskolan (Portalean). Kantu-kalejira Ego-Gain kaletik (Slow tabernako arkupeetatik) hasiko dute, 18:00etan, eta Urkizu aldera jeisten joango dira (Ego-Gain, Untzaga, Calbetón, Toribio Etxebarria, Eibarko Bizikleta Plaza, Zuloagatarren, Ibarburutze, Bittor Sarasketa eta Urkizu). Kalejira amaitu eta jarraian, salda, txorizo ogitartekoa eta San Blas opila jango dituzte Edozer elkartearen, 20:30ak aldera.

Musika Bandaren kontzertua

Eibarko Cielito Musika Bandak kontzertua emango du domekan, 12:30ean Coliseoan. Carlos Sanchez-Barbaren zuzendaritzapean, honako egitaraua eskainiko dute: "Consuelo Císcar" (pasodoblea, F. Ferran), "Rapsodia Vasca" (aukeraketa, V. Beobide), "La del Manojito de Rosas" (aukeraketa, P. Sorozabal), "Abba Gold" (aukeraketa, konponketak R. Sebregts) eta "Highlights from Chess" (musikala, konponketak J. De Meij).



Oscar Blancoren argazki erakusketa

Otsailaren 4ra arte Oscar Blancoren argazki erakusketa ikusteko aukera izango da Ermuan, Lobiano Kulturguneko erakusketa aretoan, 18:00etatik 20:00etara (sarrera doan da). "Ermua Antzokia 2017" izenburuko erakusketan iaz Ermua Antzokian izandako ekitaldietan egindako 23 argazki bildu dituzte.

GLORIA AROSTEGI EGAÑA

(2018KO URTARRILAREN 21EAN HIL ZEN, 93 URTEREKIN)



Eskerrik asko, bizitzan poztasuna eta zure maitasuna emateagatik. Eskerrik asko bidean gure argia izateagatik. Ez zaitugu inoiz ahaztuko.





MALEN ILLARRAMENDI

Carpe Diem

Aspaldi ez dela irakurri nuen zer pentsatua eman zidan definizioa. Honela zioen: bizitza da etorkizunerako planak egiten ditugun bitartean, ziztu bizian eta konturatu barik, pasatzen zaigun denbora-tartea. Eta halaxe da, bai. Etorkizunean ganorazko pertsonak izateko buru-belarri ikasten ematen ditugu urte luzeak; ikasturtea amaitu orduko hasten gara hurrengo urtekoa antolatzen; eguna amaitu orduko dugu buruan biharamuna; eta, horrela etengabe eta bizitzaren alor guztietan. Zain dugunarekiko kezka horrek ez digu orainaz gozatzen lagatzen, benetakoa den bakarraz; eta azkarregi bizitzera garamatza, denborari aurea hartuta, bidean zenbat galtzen dugun konturatu gabe. Urtarrila omen da asmo berriei heltzeko hilabeterik aproposena, hortaz, hel diezaiozun unean unekoari eta gozatu ditzagun festa, plazer, eta bizitzako momentu guzti-guztiak azkenak balira bezala, berandu baino lehen. Gero gerokoak! Orain ez bada, noiz ba? *Carpe diem* esan zuenak bazekien, bai, zertaz ari zen.

10 ikastaro prestatu ditu UEUK udaberrirako

Udako Euskal Unibertsitateak udaberrirako ikastaroak prestatu ditu eta horietarako matrikulazioa zabalik dago (ikastaroa hasi baino astebete lehenago itxiko da). Eibarren, Markeskuan emango diren ikastaroak "Euskal paisaien argazkilaritzako ikastaroa", "Askatasunean hazi, hezi eta bizi", "Ez utzi biharko gaur egin dezakezuna: zure produktibitatea hobetzeko metodo eta tresnak", "Agroekologia. Tokiko garapen integrala" eta "Hizkera argia administrazio elektronikoaren garaian" dira eta, horrez gain, beste hauek on-line egiteko aukera ere badago: "Tribuaren Berbak sekuentzia didaktikoak gelan erabiltzeko jarraibideak", "Arazo-



egoeratik proiektura. Proiektu bidezko metodologiak sustatzen", "Moodle-ren gamifikazioa eta ikasleak motibatuzeko sormenezko hainbat erabile-
ra", "Programazioa denontzat:

Python ikasi praktikaren bidez" eta "Negozio edo proiektu bat sarean ezagutzera emateko baliabideak eta gakoak". Informazio guztia ueu.eus web orrian dago.

Agustin Zuloagaren "Cielito" tangoa interneten eskuragarri ipini du Ego Ibarrak



Eibartarrentzat horren berezia den "Cielito", Agustin Zuloaga Aldecoa musika-zuzendariaren lana online jarri du Ego Ibarra batzordeak, bere web orrian. Pieza horren audioa eta partitura originala, biak daude interneten, herritar guztientzat eskuragarri. "Cielito" tangoaren grabazioa Arrate Irratiari esker eskuratu du Ego Ibarrak eta Eibarko Musika Bandak 2008ko ekainaren 1ean eskaini zuen emanaldian grabatu zuten. Agustin Zuloaga Aldecoa, Durangon jaio zen 1899ko maiatzaren 15ean, baina umetatik Eibarren bizi izan zen. Eibarko Musika Bandaren zuzendari lanpostua oposizio bidez eskuratu zuen; Musika Akademiaren zuzendari izendatu zuen Udalak eta,aldi berean, 1913an sortutako Bretón orkestaren zuzendaritza ere bere gain hartu zuen. Oso gazte, 35 urte besterik ez zuela hil zen.

Aratosteak iragartzeko kartela aukeratu dute

Eibarren aurtengo Aratosteak iragartzeko aukeratu duten kartela Juan Diego Ingelmo Benaventeren "XY" izenburukoia izan da. Irabazlea Burrianakoa (Castellon) da. Umeen mailan, berriz, 11 eta 14 urte bitartekoen atalean irabazlea Lore Arregi Cabezon-en "Nor naiz?" kartela izan da eta 10 urte arteko mailan irabazlea Martina Garate Rubio izan da, "Euskal Aratosteak" izeneko lanarekin. Edizio honetan 75 lan aurkeztu dira lehiaketara.

Ilargi Fest 2.0 jaialdia gaztetxean otsaileko lehen asteburuan

Ermuko NÜ SHU eta Eibarko NALUA talde feministek Ilargi Fest jaialdia antolatu dute elkarlanean otsailaren 2 eta 3rako, Eibarko gaztetxean. Barixakuan "Tomar el escenario" dokumentalaren proiektzioa eta mahai-ingurua egingo dira, Emaginen eskutik. Eta zapatarako, berriz, egitarau biribila prestatu dute: maskara eta buru beroki tailerra, batukada feminista, "basoa buruan" lehiaketa eta kontzertuak La Basu, Drumkopters, La Furia eta DJ Tarantistak Martxan taldeekin.





Berdeago Nature azoka DURANGON

Asteburu honetan Berdeago, Euskal Ingurugiro Iraunkortasun Azoka hartuko du Durangoko Landako Guneak. 70 erakustoki bilduko dituen azokak 10:00etatik 20:30era zabalduko ditu atea zapatuan eta domekan, berriz, 10:00etatik 20:00etara. Hiru gune didaktiko prestatu dituzte: "Hitz Berdea Gunea" (iraunkortasunari lotutako hitzaldiak), "Zirkulo Berdea Gunea" (esperimentatzeko, tailerrak...) eta "Film Berdea Gunea" (emanaldiak, Plateruena Kafe Antzokian).



Zenet-en kontzertua ERMUAN

Gaur gauean, 22:15ean kontzertua emango du Toni Mellado ("Zenet") abeslari malagarrik Ermua Antzokian. Udak antolatutako emanaldian "Si sucede, conviene" lana aurkeztuko du. Zenetek 2008. urtean egin zuen jauzi musikaren mundura, "Los mares de China" bere lehen lanarekin. Sarrerak 12 euro balio du.



MUGI PANDEROA jairik-jai

Urte berria jairik jai hasiko dute Mugi Panderoa taldekoek: gaur Elgoibarko gaztetxean emango dute kontzertua, Bosko Egunaren aitzakiarekin eta otsailaren 3an, berriz, Legution egongo dira, San Blas jaiak ospatzen.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Fe Guede Conde. 88 urte. 2018-I-12.
- Roberto Etxaburu Larrañaga. 85 urte. 2018-I-17.
- Encarnacion Perez Aznar. 96 urte. 2018-I-18.
- Natividad Garcia Santiago. 83 urte. 2018-I-18.
- Julio Orueta Arrieta. 60 urte. 2018-I-18.
- Gloria Arostegi Egaña. 93 urte. 2018-I-21.
- Jose Garin Garin. 86 urte. 2018-I-21.
- Josefa Ibarrolaburu Bastarrika. 97 urte. 2018-I-21.
- Juana Añibarro Isasti. 91 urte. 2018-I-21.
- Julia Arbulu Gabilondo. 88 urte. 2018-I-22.
- Felix Rodriguez Pedroche. 74 urte. 2018-I-22.
- Jose M^a Minondo Arizaga. 75 urte. 2018-I-22.
- Irene Ibarzabal Bergara. 93 urte. 2018-I-23.
- Ignacio Zugaza-Artaza Begoña. 86 urte. 2018-I-24.

jaiotakoak

- Arai Guenaga Arregi. 2018-I-18.
- Miren Puerto Quintana. 2018-I-18.
- Iker Gonzalez Fernandez-Reyes. 2018-I-19.
- Leire Redero Irastorza. 2018-I-19.
- Amina Gourmat. 2018-I-19.
- Libe Iglesias Cid. 2018-I-20.

farmaziak

- Barixakua 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 27
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 28
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Astelehena 29
EGUNEZ Lafuente (Sostoatarren, 10)
- Martitzena 30
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguaztena 31
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Eguena 1
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Barixakua 2
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2018AN-
 Lafuente (Sostoatarren, 10)

SUDOKUA

AURREKOAREN
 EMAITZA

6	2	8	3	5	7	9	4	1
9	4	3	6	8	1	2	7	5
5	1	7	9	4	2	3	6	8
8	6	5	1	9	3	7	2	4
4	7	2	5	6	8	1	9	3
3	9	1	2	7	4	8	5	6
2	5	6	8	3	9	4	1	7
7	8	9	4	1	5	6	3	2
1	3	4	7	2	6	5	8	9

			6					9
		6			7			
		1	2	9		6	7	
4	7				5	8		
	1			2			6	
		5	1				3	7
	6	4		1	2	7		
			8			3		
2				4				

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udalizaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 26

HITZALDIA

18:00. "Edari energetikoak, zer saltzen digute?", Alazne Agirrezabala-rekin. Indianokua gaztelekuan.

MUSIKA

20:30. "Gloria Fuertes-i ikasitako poemak" (Maite Arroitauregi). 5 euro. Coliseo antzokian.



UMEENDAKO TAILERRA

11:00. Aratosteak. Doan. Izen-ematea liburu sailean (3. solairuan). El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

ZAPATUKO IPUINA

18:00. "Bi animalia larri, tontolapiko bat eta poesia...". Oihana Etxegibel Alberdik hiru ipuin kontatuko ditu, 4 urtetik gorako umeentzat. Umeen liburutegian.

POESIA

21:00. Afari poetiko-musikala. Itzamna Poesia Tailerraren eskutik. Chalcha jatetxean.

Astelehena 29

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 41. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Untzagako jubilatutako etxean.

ELKARRETARATZEA

12:00. Pentsio duinak eskatzeko elkarretaratzea. Untzagako (udaletxe parean).

SANTA AGEDA

21:00. Santa Ageda bezperan Sostoa abesbatzarekin batera kalejiran irteteko entsegua. Musika Eskolan.

Eguaztena 31

IKASTAROA

18:00. Pellak eta torradak, Berbetaneko partaideentzat. Portaleko sukaldean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

SANTA AGEDA

21:00. Santa Ageda bezperan Sostoa abesbatzarekin batera kalejiran irteteko entsegua. Musika Eskolan.



Zapatua 27

TAILERRA

10:00/12:30. Papiroflexia tailerra, Rafa Rodrigoren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 41. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Untzagako jubilatutako etxean.

IKASTAROA

11:00. San Blas ikastaroa, Arrate Kultur Elkartean eskutik. Portalean.

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

DANTZA-JAIALDIA

17:30. "¡Diga 33!", Lagun Taldearen dantza-jaialdia. Hezkuntza Esparruan.



Domeka 28

ANTZERKI JARDUNALDIAK

10:00/14:00. 41. Antzerki Jardunaldietarako sarreren aurrealmenta. Untzagako jubilatutako etxean.

MUSIKA

12:30. Eibarko Cielito musika bandaren kontzertua. Coliseoan.



MUS TXAPELKETA

16:00. Euskal Herriko X. Mus Txapelketako kanporaketa. Izen-ematea: 20 euro bikoteko. Hirurok.

KIROLA FAMILIAN

17:30/19:30. Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

Martitzena 30

IKASTEN

10:00. "Curiosidades de la historia de la medicina", Josean Blanco Ingeles Filologian lizentziatua, kazetari eta poetaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Punto-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

IKASTAROA

18:00. Pellak eta torradak, Berbetaneko partaideentzat. Portaleko sukaldean.

Eguena 1

KALEETAN KANTUZ

17:00. Dantza (beheko maila).

18:00. Dantza (maila altua).

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Erakusketak

Urtarrilaren 28ra arte:

– "EIBARKO KOLOREAK". (Armaztearen Museoa)

Urtarrilaren 31ra arte:

– SONIA ALVAREZEN ARGAZKIAK. (El Ambigú tabernan)

– UZTARGI KLIK (JOSE MIGUEL BILBAO, JAVIER GUINEA, JUAN J. SALAS, SEVE SANCHEZ, PACO VALDERAS, PRIMI VILLALTARENA) TALDEAREN ARGAZKIAK. (Portalea tabernan)

Otsailaren 4ra arte:


– "NOROSUR O (O)" MIGUEL ANGEL PEDROZA OCHOAREN ESKULTURAK. (Portalean)

– "SEÑALES DEL RUIDO" FRANCISCO ALONSO SEVILLAREN ARGAZKIAK. (Portalean)

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UXUE!!, etxeko printzesak 3 urte egingo ditte-eta hillaren 30ian. Millioi bat musu guraso eta famelixaren partez.



Zorionak, JUNE!, bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Musu eta besarkada haundi bana famelixaren partez!



Zorionak, IRATI, gure printzesa, hillaren 21ian 8 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JOSU, gaur 9 urte betetzen dozu-eta. Oso ondo ospatu lagunekin. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.




Zorionak, ALBA, datorren martitzenian 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.




Zorionak, ANE, aurreko barixakuan 12 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Iraiaren partez.




Zorionak, JUNE, gure printzesa, domekan 7 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztien partez.




Zorionak, AIUR, Sarasketa Santos, 18xan urtetxua egin zenduaz-eta. Musu bat Iزارo, Eder eta etxeko guztien partez.




Zorionak, XUHAR, txapeldun!!!, gaur 3 urte beteko dozuz-eta. Musu bat famelixaren eta, batez be, lehengusu Eukenen partez.



Zorionak, MALEN!, hillaren 15ian 3 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAULE (hillaren 12xan 7 urte egin zenduaz-eta) eta HAIZEA (bixar 8 beteko dozuz). Musu haundi bat aitxitxa Eduardo, amama Itziar eta etxekuen partez.



Zorionak, IKER!, bixar 13 urte beteko dozuz-eta. Musu bat etxeko danon partez.



Zorionak, LANDER!!! Oso ondo ospatu zure urtebetetzia! Famelixa guztiaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)
27an: 19,45, 22:30
28an: 20:00
29an: 20:30

"Thi Mai. Rumbo a Vietnam"
 Zuzendaria: Patricia Ferreira



(2 ARETOAN)
27an: 22:30
28an: 20:00
29an: 20:30

"Entre ellas"
 Zuzendaria: Solange Cicurel



(ANTZOKIAN)
27an: 17:00⁽¹⁾, 19,45, 22:30
28an: 17:00^(1 aretoa), 20:00
29an: 20:30

"Los archivos del Pentágono"
 Zuzendaria: Steven Spielberg



(2 ARETOAN)
27an eta 28an: 17:00

"Salvando al Reino de Oz"
 Zuzendaria: Vladimir Toropchin



(ANTZOKIAN)
27an eta 28an: 17:00

"My Little Pony"
 Zuzendaria: Jayson Thiessen



Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Hiru lagunentzako gela behar dute Eibarren errentan. Tel. 652-667788.
- Pisu baten bila nabil konpartitzeko, Eibarren edo inguruan. Neska euskalduna naiz eta Eibarren lan egiten dut. Tel. 606-385144 eta 646-418190.
- Pisu behar da Eibarren, konpartitzeko, edo gela errentan. Tel. 660-114801.
- Pisu, edo gela, hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-139806.
- Pisu hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 632-337083.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiekin: koadro elektrikoa, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

3.2. Errentan

- Garaje itxia alokagai Untzaga inguruan. Tel. 652-775746.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-482526.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-529252.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-387305.
- Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 646-821678.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 612-245326.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta ilepaindegian lan egiteko. Tel. 632-839617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Asteburuetan eta gauz ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 671-763558.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketara orokorrak egiteko goizez. Tel. 652-667788.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Tel. 632-678577.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 653-412285.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 632-949742.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-891709.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 662-012834.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-155993.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-686553.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta ostalaritzan lan egiteko. Tel. 631-128719.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 612-223075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-338758.
- Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan, nagusiak zaintzen edo baserri lanetan jarduteko. Tel. 603-800105.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-727823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 647-314817.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak gauz zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 692-424505.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 658-273926.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta txakurrak paseatzeko. Tel. 632-067287.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 604-029356.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 689-571882.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 663-448568.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak asteburuetan zaintzeko. Tel. 622-677230.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 677-553828.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 650-409953. Marbeli.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 697-961386. Jazmin.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-024580.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
- Emakume arduratsua eskaintzen da interna lan egiteko. Esperientzia. Tel. 627-230784.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-114363.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-189294.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-841284.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-620344.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-844282.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 678-112785.
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Eraikuntza, berriztapen, pintura eta garbiketarako esperientzia. Tel. 600-264460.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-654647.

4.2. Langile bila

- Pertsona euskalduna behar da arratsalde umeak zaintzeko. Tel. 605-756532.
- Emakumea behar da sei hilabeteko umea zaintzeko goizez. Tel. 657-797210.
- Kamarera/o euskalduna behar da. Tel. 634-277015.
- Laser depilazioan eta estetika aurreratu espezializatutako enpresak estetizista behar du Eibarren zabalduko duen zentro-rako. Curriculuma bidali: rrrh@tacto.es
- Emakumea behar da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneetik zapatura. Tel. 677-553828.
- Estetizista behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-200700.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Magisteritzan ikasitako ingeleseko tituludun neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
- DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen ditut. Matematika, Fisika, Kimika, Ekonomia. Talde txikiak. Goiz eta arratsalde. Tel. 685-739709.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Azterketetarako prestaketa: EGA, Osakidetza eta HABEko perfilak... Ume eta helduentzako klaseak. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Hyundai SUV Gama. Zuk aukeratutakoa.



TUCSON 17.900€tik aurrera

SANTA FE 26.715€tik aurrera

KONA 13.990€tik aurrera

Dagoeneko zure mugak gainditu, handia den zerbaitekin bat egin eta intentsitatez bizi zaitezke. Eta, horrez gain, zelan egin nahi duzun aukeratu dezakezu Hyundairen SUV Gamak eskaintzen dizkizun aukeren artean. Puntakoena aukeratzekotan, KONA Berrira aukeratuko duzu. Estiloak, konektibitateak eta abangoardiako diseinuak inspiratuko zaitue edonora joanda ere. TUCSON Hyundairekin jokabide, diseinu eta prestazioen artean konbinaketa biribila erakusten duen modeloaren arrakastarekin gozatuko duzu. Eta, azkenik, handiena, SANTA FE Hyundai: sofistikazioa, espazioa eta luxua azken detaileraino. **Zuk aukeratutakoa da.**

OARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.OARSO-CAR.COM

ELGOIBAR
OIARTZUN
Lintzirin Poligonoa, 1
943 49 48 30

Olaso Polig., 17
BEASAIN
Errepide Nazionala, 1
943 80 40 54

943 74 14 80
IRUN
Juan Thalamas, 43
943 63 97 69



TUCSON Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 119-175. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6 - 7,5. SANTA FE Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 149-174. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,7 - 6,6. KONA Hyundai Gama: CO₂ emisioak (gr/km): 117-153. Kontsumo mistoa (l/100km): 5,2 - 6,7.

PSP gomendagarria Penintsulan eta Balearretan TUCSON 1.6 GDI 96,4 kW/131CV 4X2 BLUE2 ESSENCE (17.900€), SANTA FE 2.0 CRDI 150 CV (110,4kW) 4X2 ESSENCE 7 jarleku (26.715€) eta KONA 1.0 TGD 120CV (88,3kW) 4X2 ESSENCE (13.990€) autontzat. BEZ, garraila, matxulazio-zerga, sustapeneko deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta mantenimendu-egokitzak barne. Hyundai-ra Aldatu. Plana aplikatu dabilte erabiliko auto baren truke, 6 hilabeterekin, Hyundai berri bat erosten duen bezeroaren 19ulartasunpean. Eskaintza hau aplikagarria da Críking Solución Flexible produktuarekin finantzazten duten bezero partikularrentzat, Banco Cetelem S.A.U.-ren bitartez, 13.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin TUCSON-en kasuan, 16.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin SANTA FE-ren kasuan, eta 12.000€ gutxienez, 36 hilabeteko gutxieneko epean eta 36 hilabeteko gutxieneko egonaldiarekin KONA-ren kasuan. Finantziazioa finantza-erakundeak aztertu eta onartu beharko du. Eskaintza 2018/06/30era arte da baliozkoa. Ikusten diren modeloak: TUCSON Style, SANTA FE Style eta KONA Style. Mantenimendua ibilgailuaren finantziazioari lotua. *Hyundai Motor España S.L.U.-k bere bezeroei eskaintzen dien km mugarik gabeko 5 urteko berme komertziala Hyundai-ren sare ofizialak salduko dituzko ibilgailuei soilik aplikatuko zaie, zerbitzu-pasaportearien baldintzen arabera. Kontsultatu itazu eskaintza, mantenimendu eta bermearen baldintzak Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es web-orrian.



Julian Etxeberria, 5
943 03 08 35

Datorren asteko eskaintzak:

AMAIA eta MARTIN, Okeletxe frankiziaren jabe berriak



2'99€/kg



Txerri-kabezada

4'99€/kg



Txerri-txuleta

9'95€/kg



Behi-txuleta
beheko solomoa



1'99€/kg

Oilasko
izterra



4'95€/kg

Oilasko
izterbetea



4'95€/kg

Oilasko
bularra



EIBAR BHI 943 20 30 94
MOGEL ISASI DBH 1 eta 2



EIBAR BHI 943 70 22 89
ITZIO DBH 3 eta 4



EIBAR BHI 943 20 83 49
I. ZULOAGA DBH 3, 4 + Batxilergoak



AMAÑA 943 20 72 50



ARRATEKO ANDRA MARI 943 20 72 35



J.A. MOGEL IKASTOLA 943 20 84 87



SAN ANDRES 943 20 79 95



URKIZU 943 12 17 78

Aurrematrikulak

**HAUR, LEHEN ETA DERRIGORREZKO
BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXEETAN**

**Urtarrilaren 29tik
Otsailaren 9ra**

Euskal Eskola Publikoa

Handitzen handitzen

Mundua eskuratzeko

AURRE-MATRIKULA
Urtarrilaren 29tik
otsailaren 9ra

ONLINE AURREMATRIKULA
www.hezkuntza.net

Euskadi, auzolana

ELISKO JAULAKARITZA GOBIERNO VASCO

2018-2019 IKASTURTEA